



BURUNZPE

SASOETA-ZUMABURU
GURASO ELKARTEA

AMPA DE
SASOETA-ZUMABURU

BURUNZPE GURASO **ELKARTEA**

SASOETA-ZUMABURU: **MARKAK HAUSTEN** **EUSKERA INDARTZEN**



AURKIBIDEA

- 1. TESTUINGURUA.....3. orria**
 - 1.1 Lasarteko errealitatea
 - 1.2 Lasarteko eskolen historia eta irudia
 - 1.3 Azken urteetako egoera
 - 1.4 Euskara Batzordearen eratzeta
 - 1.5 Eskolako zuzendaritzarekin hartu emana
 - 1.6 Gainontzeko agenteekin hartu emana
- 2. PROIEKTUAREN ARDATZAK.....6. orria**
 - 2.1 Proiektuaren helburua
 - 2.2 Eragin beharreko esparruak
 - 2.3 Ekintza motak
 - 2.4 Limitazioak
- 3. PROIEKTUAREN EKINTZAK.....9. Orria**
 - 3.1 Taldea osatu
 - 3.2 Mezua erabaki
 - 3.3 Gurasoei mezuak
 - 3.4 Lasarte-Oriako Maratoia
 - 3.5 Euskeraren eguna / Ekaineko jaialdia
 - 3.6 Korrika eta antzeko ekintzak
 - 3.7 Matrikulazio garaia
 - 3.8 Facebook perfila sortu
 - 3.9 Eskolaz kanpoko jarduerak
 - 3.10 Eskolako zuzendaritzari babesa eman euskararen erabileraren alde ematen ari diren pausoetan
- 4. INDIKADOREAK.....17. Orria**
 - 4.1 Indikadore kuantitatiboak
 - 4.2 Indikadore kualitatiboak
- 5. ATXEKITAKO DOKUMENTUAK.....19. Orria**
 1. ERANTSIA. Ebeteren hitzaldiaren kartela
 2. ERANTSIA. Hasera baten egindako bileren laburpenak
 3. ERANTSIA. Ebete-ren plangintza
 4. ERANTSIA. Maratoia
 5. ERANTSIA. Euskararen Eguna
 6. ERANTSIA. Korrika
 7. ERANTSIA. Euskaraz Bizi Nahi Dut ekimena
 8. ERANTSIA. Eskolaz kanpoko jardueren kriterioak
 9. ERANTSIA. Matrikulazio garaiko plangintza
 10. ERANTSIA. Zuzendaritzaren babes eskutitza



1. TESTUINGURUA

1.1. Lasarte-Oriako errealitatea.

Lasarte-Oriak 18.000 biztanle inguru dituen Gipuzkoako herri bat da. Inguruan ezarritako industria ezberdinek bultzatu duten inmigrazio prozesuaren ondorioz, azken mendean izugarrizko hazkundera izan du. 1860. urten, 583 ziren Lasarte-Oriako biztanleak. 1940-50-60 hamarkadetan hazkunde nabarmena izan zuen industrializazio prozesuaren ondorioz, eta horrek Espainiako inmigrazio kopuru itzela etortzea suposatu zuen, biztanle kopurua izugarri handituz. Inguruko beste herri batzuetan benetako integrazio prozesu bat eman zen, jasotako inmigrazioa, herriaren populazioarekiko egokia zelako, baina Lasarte-Oriako kasuan, integrazio egoki bat izateko aukerarik ez zen izan. Eta horren ondorio dira besteak beste, gaur egun Lasarte-Oriak duen egoera sozio linguistikoak. Etorritako pertsona kopurua itzela izan zelako, etorri ziren pertsona gehienek beraien erro eta hizkuntzak mantendu zituzten.

Guzti hori kontuan izanik, ulergarria da Lasarte-Oriako euskerak duen egoera gutxitua. Komunitate euskaldun sendo bat dago, ekintza ugari egiten dituen eta oso ondo antolatuta. Ttaku Elkartearen inguruan. Baina kalean euskeraren presentzia oso gutxitua da, kopuruz euskeraz ez dakitenak askoz gehiago bait dira. Dena den, tendentzia positiboa da, batez ere herriko ikastetxeek euskerarekiko egiten duten apostu argia dela eta, ta euskaltegien lan bikainagatik.

1.2. Lasarte-Oriako eskolen historia eta irudia

Lasarte-Oriak momentu honetan bi herri ikastetxe ditu. Biek historia oso ezberdina dute, nahiz eta momentu honetan biak eskola publiko izan, D ereduan oinarritutakoak, beraz baliabide, ikaste prozesu eta materia antzekoekin. Sasoeta-Zumaburu Ikastetxea, aintzinako "herri eskola" edo "colegio"-tik dator, nahiz eta iragan horretatik ezer gutxi duen gaur egun. Herriko beste eskolak, ikastola izatetik du jatorria, ta ondorioz aintzinako Lasarte-Oriako euskaldun komunitateak bultzatutako proiektua izan zan bere garaian.

Historia hori kontuan izanik, imajin ezberdina dute bi eskolek herrian. Alde batetik Sasoeta-Zumaburuk inmigrazio eta gaztelerarekin lotutako imajina du, eta beste eskolak berriz euskerarekin lotura handiagoa du. Baina Lasarte-Oriako egoera sozio linguistikoa kontuan izanik, bi eskolentzako da prioritariora euskeraren garapena gure herriko umeen artean.



1.3. Azken urteetako egoera

Herriko bi ikastetxeek duten irudiaren ondorioz, azken urteotan, Lasarte-Oriako gurasoek, beraien umeak eskolan sartzeko garaian, herriko beste eskolari lehentasuna eman diote Sasoeta-Zumaburu Ikastetxearen aurretik. Eta horren ondorioz, herriko beste ikastetxean denak ezin onartu zitezkenez, erizpide batzuen arabera jendea kanpoan gelditu behar izan da, ta horiek etorri izan gera Sasoeta-Zumaburu Ikastetxera.

Onarpen erizpideen artean, lehenagotik eskolan ikasitako gurasoak izatea zegoenez, Lasarte-Oriako aintzinako euskal komunitateak, orokorrean beste eskolan lekua izan du. Eta horren ondorioz Sasoeta-Zumaburu Ikastetxean Lasarte-Oriakoak ez diren gurasoak sartu gera, batzu Euskal Herriko beste herritatik etorriak, eta beste batzu urrutiagotik etorriak.

1.4. Euskara Batzordearen eratzea

Umeen gehiengoaren ama hizkuntza gaztelera da gure ikastetxean, eta ondorioz, umeen arteko hizkuntza ohitura klasetik kanpo gaztelera da orokorrean. Egoera honek, bereziki ama hizkuntza euskera duten umeen gurasoengan kezka sortu izan du. Eta kezka horren ondorioz, guraso batzuek ikastetxez aldatzeko aukera hartu dute. Baina beste batzuk berriz, ikastetxe barrutik lan egiteko aukera hartu degu, uste bait degu egoera hau Lasarte-Oriako errealitatearen islada baino ez dela, eta guk zeozer egin dezakegula aldatzeko. Ondorioz, guraso elkarte barruan Euskara Batzordea eratu genuen orain dela urte bete, kezka honen inguruan lan egiteko prest gauden 5 guraso gaudelarik bertan.

Baina euskera batzordea ekintzak bultzatzeko erraminta bat baino ez da. Berez guraso elkarte osoa dago inplikatur aurrera eraman nahi degun proiektuan, guraso elkarte osatzen degun 25 pertsonen degu parte hartze zuzena proiektu honetan, eta batzorde desberdinen elkarlanean oinarritzen da proiektua.

Guraso elkarteak ondorengo batzordeak ditu, jestio batzordea, obra batzordea, eskolaz kanpoko ekintzen batzordea, festa ta liburu batzordea eta euskera batzordea. Eta denen arteko elkarlana ezinbestekoa da batzorde bakoitzak dituen helburuak aurrera eramateko. Zentzu horretan, euskera batzordeak proposatutako ekintza guztietan, gainontzeko batzordeen erantzuna bikaina izan da beti.

1.5. Eskolako zuzendaritza

Euskara Batzordea eta Eskolako zuzendaritza elkarlanean aritzen gera, helburu berdina bait degu. Zentzu horretan, egindako ekintza guztiak ikastetxeko zuzendaritza kontuan



hartuz egin dira, beraien eritzi, esperientzia eta ezagutza kontuan izanik eta beraien inplikazioa ezin hobia izan da ere. Batzordea eratu zenean, zuzendariarekin bilera bat izan genuen, gure helburuak adierazteko eta ikastetxearen ekintzak aztertzeke. Esan beharra dago, ikastetxearen euskerarekiko jarrera ezin hobia dela, guztiz konprometituta dagoela ikastetxeko umeen euskera menperatzeko eta erabiltzeko helburuarekin. Eta argi du ere gurasoen inplikazioa ezinbestekoa dela helburu hori lortze bidean.

Garrantzitsua da ere aipatzea, eskolak hizkuntza normalkuntza bidean Ulibarri programan parte hartzen duela, eta bertan urte osorako euskeraren inguruan egin beharreko ekintzen plangintza egiten dela. Plangintza horretan gurasoen parte hartzea oso garrantzitsua da zuzendaritzarentzat.

1.6 Gainontzeko eragileekin hartu emana

Euskara Batzordearentzat ezinbestekoa da herriko gainontzeko eragileekin elkar lanean aritzea. Zentzu horretan, aipatzekoak dira herriko hiru eragilerekin izandako lankidetzak eta harremana.

Ttakun Elkarteak: Lasarte-Orian erreferente dira euskeraren normalkuntzaren inguruan egiten diren ekintzak guztietan. Beraiekin oso harreman estua izan degu, Lasarte-Orian egiten diren ekintzak garrantzitsuenetan gure parte hartzea ziurtatzeko. Zenbait bilera izan ditugu, eta bereziki Lasarte-Oriako Euskararen Maratoiaren inguruan elkarlana oso estua izan da, eta beraien laguntza ezin bestekoa.

Udaletxea: Euskara Batzordea martxan jarri zenean, izan genuenetako lehen bilera udaletxearekin izan zen, udaletxeko euskara arduradunarekin. Bertan gure helburuak adierazi genizkion eta argi geratu zen elkar lanerako aukera bikainak zeudela, helburu amankomunak bait ditugu.

Txintxarri aldizkaria: Lasarte-Oriak bere aldizkari propioa du. Guretzako garrantzitsua da Lasarte-Orian euskerarekin erlazionaturiko ekintza desberdinetan gure ikastetxea ere agertzea, eta zentzu horretan Txintxarri aldizkariarekin egoteko aukera ere izan degu, eta gure presentzia ziurtatuta dagoela iruditzen zaigu, herriko ekintzetan jarrera aktibo bat mantentzen degun bitartean.



2. PROIEKTUAREN ARDATZAK

2.1 Proiektuaren helburua

Proiektu honen helburu nagusia, euskararen erabilera sustatzea da, bai gelan, bai jolas garaian, bai jangelan eta baita eskola garaiko gainontzeko ihardueretan. Ikastetxeko guraso talde baten kezka nabaria da, umeen hizkuntza ohiturak ikusita, gaztelera nabarmen nagusi delako. Horren arrazoia argia da. Lasarte-Orian bizi gera, eta gure herriaren errealitatea gaztelera nabarmen nagusi dela da. Ikastetxeko umeen gehiengo nagusiak ama hizkuntza gaztelera du, eta euskera klasean baino ez dute erabiltzen. Ondorioz, nabarmena da hizkuntza ohituretan aldaketa ematen saiatu behar garela, guk posible degun esparruetan eraginez.

Horren ondorioz bigarren mailako zenbait helburu ere planteatu ditugu, beti helburu nagusia lortzeko bidean:

- Gurasoen artean euskararen erabileraren aldeko kezka garatzea.
- Euskeraz hitzegiteko erraztasuna duten umeek konpetentzia hori garatzeko aukera izan dezatela.
- Lehen hizkuntza euskara ez duten umeen euskerarekiko progresio positiboa bultzatzea.
- Lasarte-Orian, Sasoeta-Zumaburu Ikastetxearekiko dagoen euskararen inguruko irudi negatiboa aldatu nahi degu eta euskararen inguruan erreferente bihurtu.
- Proposatzen diren ekintzak aurrera eraman ahal izateko diru iturriak izatea.

2.2 Eragin beharreko esparruak

Hiru dira identifikatzen ditugun eragin beharreko esparruak, eta esparru bakoitzean egin beharreko ekintzak eta helburuak ezberdinak dira.

- Etxea: honek haurren hizkuntzen ezagutza eta ohituretan eragin handia du, beraz lehentasunezkoa da guretzat. Gurasoak euskararekiko aktiboak izatea bilatu nahi da, bai euskaraz dakitenak, eta baita euskaraz ez dakitenak ere. Oso garrantzitsua da, umeek etxean euskararekiko jarrera oso positiboa izatea, bere erabilera gogoan eragin zuzena izango bait du.
- Eskola: guraso elkarteak, eskolaren norabide berean lan egin nahi du. Eskolako eremuan hutsuneak edo behar jakin batzuk daudela ikusten bada, horietan eragiteko ahalegina egingo delarik.



- Herria: gure seme alaben hizkuntza ohituretan eragitera begira, herrian dauden baliabideak modu eraginkorrean erabili behar dira. Aldi berean, garrantzitsua da, lehen aipatu bezela, herrian gure eskolarekiko dagoen imajina aldatzea, euskararekin loturarik ez duen irudia. Lanean aktiboak izan behar gera, herrian egiten diren ekintza guztietan presente egoteko, jarrera proaktiboarekin, gutxinaka euskera alorrean erreferente bihurtzeko ideiarekin.

2.3 Ekintza motak

Euskara Batzordetik antolatutako ekintzek hiru puntu izango dituzte kontuan, beti ere lehen aipaturiko helburuak lortze bidean:

- Mantentzea = fidelizatzea. Haur Hezkuntzako guraso euskaldunek Lehen Hezkuntzara pausoa ematerakoan seme-alabek eskolan jarraitzea lortu nahi da. Eskolak duen irudia dela eta, eskolarekiko aurreiritziek, hainbat gurasok seme-alabak beste eskola batera eramatea ekartzen du eta hori arazo handia da gure ikastetxearentzat. Aurreiritzi horiekin hautsi nahi da, zenbat eta guraso euskaldun gehiago, orduan eta euskara maila eta erabilera altuagoak, orduan eta irudi hobea eta orduan eta errazagoa guraso euskaldunak erakartzea eta mantentzea.
- Erakartzea = eskola hautatzea. Guraso euskaldunak erakarri nahi dira 2 eta 3 urtekoen matrikulazio kanpainak egiten direnean. Zenbat eta guraso euskaldun gehiago erakarri, orduan eta errazagoa beste bide guztiak garatzea.
- Hobetzea: gurasoak + eskola. Gurasoen euskararekiko jarrerak landu behar ditugu, gurasoak (euskaldunak zein euskara ez dakitenak) euskararekiko aktiboak izatea landu behar da. Euskararekiko jarrera egokiak transmititzea, eredu izatea, eskola orduz kanpoko jardueretan euskarazkoak hautatzea... Beste bideen osagarri garrantzitsua da. Eskolan irakasleen bidez egiten ari den lana ere osatu eta indartu nahi da, eta zuzendaritza eta irakasleei babesa eman, euskera sustatu eta indartzeko hartzen diren erabakietan.

Horrela, egiten ditugun ekintza guztiek bi ardatz nagusi izango dituzte. Lehenik eta behin eragin beharreko esparruan (etxea, eskola, herria), eta bestetik ekintza mota (mantentzea, erakartzea, hobetzea). Aurrera eramaten diren ekintza guztietan bi ardatz horiek kontuan izango dira, garrantzitsua bait da nori zuzendua dagoen eta zein helbururekin argi izatea.



2.4 Limitazioak

Argi ditugu ere euskera batzordeak dituen limitazioak, baina horiei ere konponbidea jartzen saiatzen gera.

Bi limitazio nagusi ditugu, alde batetik denbora falta eta bestetik ezagutza falta, bai euskera sustatzeko moduen inguruan eta baita hezkuntza sistemaren inguruan.

Baina arazo horiek ere erraz moldatzea lortu degu, lanerako gogoia altua bait da. Alde batetik, eskolako zuzendaritzarekin hartu eman estua lortu degu, eta horrek ezagutzaren falta neurri handi baten gainditzea ekarri du. Aldi berean ere kanpo laguntza bilatu degu, eta euskera sustatzeko helburua duten ikastetxeekin lanean aritzen den Ebete aholkularitzaren laguntza kontratatu degu. Erabakiorra izan da Ebete-ren lana gure helburuak eta ekintzak planifikatu eta aurrera eramateko orduan, lan txukuna eta gertukoa egiten bait du, euskara batzordeko kide bat gehiago bihurtu delarekin.

Denbora falta ere neurri baten gainditu ahal izan degu, gaur egungo aurrerapen teknologikoen laguntza bait degu. Bilerak izatea ezinbestekoa da, eta normalean ostiral arratsaldetan biltzeko aukera izaten degu, gutxi gora behera bi astetik behin. Ta bitartean e-mail bidez joaten gera egin beharreko ekintzen inguruan eritziak eta aurrerapausoak komentatzen. Batzordeko bost kideek lan egiten degu, eta bakoitzak ordutegi desberdinekin, batzuk turnoka, besteak goizez, besteak goiz ta arratsaldez. Baina bi astetik behineko tartetxo hori topatu ahal izan degu, eta ekintza potente bat datorrenean, bileren maiztasuna handitzen degu, nahiz eta askotan guztiak bildu ezin izan.



3. PROIEKTUAREN EKINTZAK

3.1 Taldea osatu

Esparrua: eskola

Ekintza mota: fidelizatzea

Euskera Batzordearen lehen ekintza, babes talde bat eratzea izan zen. Hau da, guk proposatu beharreko ekintzen inguruan laguntza emateko prest zeuden guraso talde bat osatzea. Euskara Batzordea 5 gurasoz osatuta dago, baina zenbait ekintza aurrera eramateko guraso gehiagoren inplikazioa beharrezkoa da. Horren ondorioz, ikastetxe barruan kanpaina potente bat egin zen, denborarik ez izan arren, euskera sustatzearen helburuarekin ekintzetan parte hartzeko prest zeuden gurasoen zerrenda osatzeko.

Eta horrela 20 gurasoz osaturiko Euskera Taldea osatu genuen. Lehen ekintza bezela, gure umeen hizkuntza ohituren inguruko hitzaldia antolatu genuen. Ebete aholkularitzak erakutsi zigun gure umeen hizkuntza ohituren atzean zer dagoen eta nola eragin dezakegun. Hitzaldi arrakastatsua izan zen, euskera taldeko kide gehienak eta guraso batzordeko kide dexente bertan izan ginelarik.

Ondoren etorriko zen plangintzaren aurre pauso bat izan zela esan dezakegu.

3.2 Mezua erabaki

Esparrua: herria

Ekintza mota: erakartzea

Gainontzeko ekintzak martxan jarri aurretik, garrantzitsu ikusten genuen mezu edo eslogan bat erabakitzea. Horrela, egiten genituen ekintza guztietan mezu hori txertatzeko aukera izango genuen.

Abiapuntu gisa, herrian zabaldu nahi genuen mezua genuen, Sasoeta-Zumaburu eskola dela herria euskalduntzeko giltza (gu gabe euskarak aurrera egitea zaila da), eta, horretaz gain, lana oso ondo egiten dela eskolan eta aurrerapauso handiak eman direla eta nabarmenak. Eskolak herrian duen fama, euskaldunen ikuspegitik, eta irudi hori aldatu nahi da. Horregatik, eskola lotu beharko genuke herriko euskaldun eta euskaltzaleentzat prestigioa duen zerbaitekin. Adibidez: euskararen maratokia.

Mezua erabakitzeko orduan, alde batetik guraso elkarteko kideei proposamenak eskatu zitzaizkien, eta aldi berean, herriko bertsolari ezagunari, Unai Muñoari ere laguntza eskatu zitzaion.

Denen artean, ondorengo zerrenda osatu genuen:



1. Sasoeta-Zumaburu: markak hausten eta euskara indartzen
2. Euskararen Maratoiak 40 km? Gu gara 41. eta 42. Kilometroak.
3. Sasoian gaude! Gurekin egiten du aurrera herrian euskarak.
4. Sasoeta-Zumaburu ikastetxea: Lasarte-Oria euskalduntzeko giltza
5. Sasoeta-Zumaburu ikastetxea: Lasarte-Oria euskaraz bizitzeko giltza
6. Gu gera giltza: Sasoeta-Zumaburu euskalduna --: Lasarte-Oria euskalduna
7. Sasoeta-Zumaburu ikastetxean euskara bizi dugu
8. Sasoeta- Zumaburu, gure herria euskalduntzeko giltza
9. Sasoeta- Zumaburu, euskaren aldeko apostua
10. Herrian Maratoia urrian, Sasoeta- Zumaburun urte osoan
11. Maratoia bultzatuz, Sasoeta- Zumaburukook gozatuz
12. Maratoia bizi bizi, Sasoeta- Zumaburu bixi bixi
13. Euskera nun, Sasoeta han.
14. Sasoetan hazi eta hezi euskaraz
15. Erroak mantentzen, euskeraz bizitzen
16. Euskeraz indartsu, bihotza osasuntsu
17. Hiru kolore: Zumaburu, Sasoeta, Institutua, euskeraz
18. Gure bihotzetik, euskeraz jario indarrekin
19. Bihotza euskaldun, heltzen urrun

Eta bozketa baten ondoren, autatuena ondorengo izan zen: Sasoeta-Zumaburu: markak hausten eta euskara indartzen. Beraz eslogan hori izango da datozen ekintzetan erabiliko deguna.

3.3 Gurasoei Mezuak

Esparrua: eskola

Ekintza mota: hobetzea / fidelizatzea

Gurasoek, euskaldunek zein euskara ez dakitenek, eragin handia dute seme-alaben hizkuntza-ohituretan eta euskararekiko jarreretan. Hori dela eta, garrantzitsua da gurasoek ikastetxearen norabidea ezagutzea, beraiek zer eta nola zaindu dezaketen jakitea.

Horri begira, hiru pauso emango dira 2012-2013 ikasturtean Ebete Aholkularitzaren bitartez, eta honek ikastetxeko irakasleekin izango dituen bileren bitartez:

1.- Irakasleekin plangintza bat lantzea: Haur Hezkuntzako irakasleak gurasoei mezuak ematen hasiko dira (euskararekiko aktiboak izatea proposatuz). Hori landu egingo da irakasleekin eta plangintza batean jasoko da: zein mezu eta noiz emango diren, zein kezka argituko diren, zein tresna eskaini eta noiz. Iraileko lehenengo guraso bileretatik jarriko da abian plan hau Ebete Aholkularitzaren bitartez.



BURUNZPE

SASOETA-ZUMABURU
GURASO ELKARTEA

AMPA DE
SASOETA-ZUMABURU

2.- Gurasoei plangintzaren berri ematea: Irakasleekin landutako plangintza aurkeztuko zaie Gurasoen Euskara Batzordekoiei. Horrela guraso elkarte eta irakasleak koordinatuta egongo dira.

3.- Guraso elkartearen jardunarekin lotzea: Plangintza ezagututa, gurasoek beraien jardunarekin nola lotu aztertuko dute. Adibidez: guraso elkartek antolatzen dituen jaialdietan antzeko mezuak txertatu daitezke. Adibidez euskararen egunean eta kurtso amaierako jaialdian.

3.4 Lasarte-Oriako Maratoia

Esparrua: herria

Ekintza mota: erakartzea

Urriaren 20 eta 21-ean, Lasarte-Orian Euskararen Maratoia ospatu zen. Lau urtero bezela, 40 orduz ekintza desberdinak antolatu ziren herriko Okendo Plazan, denak euskerarekin lotura izan zutenak, eta bertan, Sasoeta-Zumaburu ikastetxearen partaidetza nabarmena izan zelarik, eguraldiak jarritako traba guztiak gaindituz. Alde batetik, larunbat goizean eskolako irakasle eta ikasleek rockeroz jantzi eta oholtza gainean beraien erritmoa eta dantza grina erakutsi zuten. Bestalde guraso elkarteko kideek larunbat eguerdian umeentzako tailerrak antolatu genituen, globoflexia, eskulanak, kareta, aurpegi margotzea etab. egiteko aukera izan zutelarik herriko umeek. Bien bitartean, guraso elkartek ere, ostiralero eskolan egiten den Esazu Irratsaioa plazara eramane genituen. Bertan Andoni Otamendi eta Zigor Iriondo bertsolari lasartearren bertsoez gozatu ahal izan genituen eta baita Lasarte-Oriako Alkateari eta Lasarteko zenbait kultur eragileri umeek egin zizkieten elkarriketaz. Eta azkenik igande arratsaldean, Maratoiaren egitarauaren barruan, guraso elkarteko zenbait kidek eta umeek Lasarte-Oriako Benedika mendira egin zuten ibilaldia.

Nabarmenezkoa da euskeraren aldeko ekintza honetan ikastetxeko zuzendaritza, irakasle, guraso eta ikasleek izan genituen parte hartze eta elkarlana. Baina guzti horrek bere biziko lana suposatu zuen. Uda aurretik, Maratoiaren antolakuntzan aritzen den Ttakun Elkartearrekin bilerak izan genituen, gure parte hartzea zehazteko ideiarekin. Eta iraila eta urrian zehar, asteroko bilerak izan genituen, bai gure artean eta baita Ttakun-ekin, dena martxan jartzeko eta egin beharrekoak ondo prestatzeko.

Eta emaitza bikaina izan zen. Gure ikastetxeak irakasle eta ikasleen bidez izan du azken urteetan presentzia Maratoian. Baina lehen aldiz, gurasoen parte hartzea nabarmena izan da, eta Lasarte-Oriako euskeraren aldeko ekintza nagusian, oholtza gainean, modu aktiboan egoteak, gure eskolarekiko ikuspuntua aldatzeko urrats nabarmena izan dela uste degu. Garrantzitsua da gainera aipatzea eskolako 20 guraso ingururen inplikazioa izan duela egindako ekintzak.



3.5 Euskararen eguna / Ekaineko jaialdia

Esparrua: eskola / etxea

Ekintza mota: hobetzea / fidelizatzea

Abenduak 3, Euskeraren eguna dela aprobetxatuz, eta ekainean egiten den eskolako festa ere aprobetxatuz, gurasoei mezu batzuk helaraztea eta euskararekiko aktiboak izan daitezen proposatzea erabaki genuen. Zer egin eta nola aztertu beharra zegoen, baina lehen ideia batzuek bagenituen:

- Euskararekiko aktiboak izateko modu bat gure eguneroko jardunean, euskara jakin edo ez, euskara gehiago txertatzea da. Adibidez: gurasoen arteko harremanetan euskara pixka bat behintzat sartzea (gutxienez agurrak euskaraz esatea).
- Jolas edo erronka moduan proposatuko zaie: lortuko al dugu hasierako esaldiak euskaraz izatea gurasoen artean? (euskaldunak eta euskara ez dakitenak).
- Kanpaina bat egin daiteke horri begira.
- Irakasleek gurasoak animatzeko ahalegina egin dezakete Haur Hezkuntzan.
- Lehen Hezkuntzako ikasleek beraiek proposatuko dute erronka etxean

Eta euskararen egunerako, Ebete kontsultoriaren laguntza bidez, joku bat proposatu zitzaizen ikasleei (Ebetek irakasleekin izaten dituen bileren bitartez, 3.3 puntuan aipatu bezela). Honela klasean herriaren mapa bat irudikatu zuten, eta bertan euskera non nabarmentzen zen adierazi behar zuten. Gehiengoaren kasuan ikastetxea izango da euskera gehien erabiltzen den lekua. Eta erronka izango da, euskeraren egunean euskera gehiago erabiltzea gainontzeko espazioetan ere.

Aldi berean, umeei ikus dezaten gurasoen inplikazioa, ikastetxeko kortxoetan kartelak jarriko ditu guraso elkarteak eta egunean bertan, gurasoek nahi dutena idatzi ahal izango dute bertan euskaraz.

Ekintza aurrera eraman zen, eta oso emaitza onak izan zituen. Eta ekaineko jaialdirako antzeko zeozer antolatzekeo ideia degu, gutxinaka gurasoen artean ere euskararen presentzia nabaritzen joan dadin, eta umeei ikus dezaten gurasoen jarrera positiboa euskararekiko.

3.6 Korrika eta antzeko ekintzak

Esparrua: herria

Ekintza mota: erakartzea



BURUNZPE

SASOETA-ZUMABURU
GURASO ELKARTEA

AMPA DE
SASOETA-ZUMABURU

Euskararen Maratoian bezela, Korrikan ere eskolaren irudia indartzeko jarduerak antolatu dira aurten. Ahalegin berezia egin da Sasoeta-Zumaburuk protagonismo berezia izan dezan herri mailako jarduera honetan.

Korrika Lasarte-Oriatik martxoak 23-an pasa zen. Korrika pasatzen den egunaz gain, aurreko astea ere aprobetxatu nahi zan ikasleekin erronkak egiteko. Gure helburua, umeek euskera ekintza politekin erlazionatzea zen, beraz erronkak erakargarriak izatea komenigarria zen (egun baten jolas bat egitea, beste baten pelikula bat ikustea, eskulan bat...). Erronken plangintzan, korrika txikia eta azkenik gurasoekin egiteko korrika nagusia ere izango ditugu.

Lortu nahi genuena zan, aurtengo korrikan, Sasoeta-Zumaburutik izan den guraso parte hartzerik handiena izatea. Ta gainera parte hartzea nabarmentzea. Horretarako, Euskara Batzordeak bixera batzu erosi ditu, kolore biziko bixera batzu, eta bertan gure eslogana txertatu degu. Ideia 200 bixera erostea zen, nahiz eta hasera baten zaila iruditu hainbeste pertsonen parte hartzea bultzatzea. Bixeren helburua bikoitza zen, alde batetik gure presentzia agerikoa izatea, eta bestetik, eskolako gurasoen parte hartzea motibatzea, etortzen zenak izango bait zuen bixera opari.

Eta jarritako helburua txiki geratu zen azkenean. 200 bixerak banatu ziren, eta korrikan zehar bixera laranjen presentzia oso nabarmena izan zen Lasarte-Orian zehar egin zuen ibilbide osoan. Izatez herriko txintzarri aldizkarian, portadan agertu zen argazkian gure bixera zeramatzaten kideak agertzen ziren.

Antzeko ekintza gisa kontsideratzen degu “Euskeraz bizi nahi dut” ekimena ere. Bertan ere parte hartze aktiboa izan genuen, bai Lasarte-Orian egin zen ekintzaren antolakuntza eta baita bertan parte hartuz. Ekintza konkretuki herri osoan zehar egin genuen martxa bat izan zen. Esan bezela, gure helburua, herrian egiten diren ekintza guztietan presentzia aktiboa izatea da.

3.7 Matrikulazio garaia

Esparrua: eskola

Ekintza mota: erakartzea / hobetzea

Matrikulazio garaia oso momentu garrantzitsutzat jotzen degu Euskara Batzordean. Izatez, gure behar nagusienetako bat, ama hizkuntza euskara duten umeen portzentaia handitzea da, horrela gainontzeko umei euskeraz hitzegiteko aukera gehio emateko.

Lehen aipatu bezela, gure herrian, lasartear euskaldun zaharrek, orokorrean beste ikastetxean apuntatu ohi dituzte umeak. Eta gure helburua da, gutxinaka tendentzi hori aldatzen joatea, eta eskola bat edo bestea aukeratzeko momentuan, euskera ez izatea aldagai bat. Horregatik ari gera esfortzu berezi bat egiten, euskararen inguruan egiten diren herriko ekintza guztietan presentzia nabarmena izaten.



Matrikulazio garairako, lehenik eta behin bideo labur bat prestatu genuen, gure eskola eta euskera erlazionatzen dituen testu eta imajin batzuekin. Bideoari zabalkuntza nabarmena eman genion, bai e-mail, internet eta sare sozialetan jarriaz. Bideoaren amaieran, egin behar genituen aurkezpenetara gonbidatzen genituen guztiak.

Bi aurkezpen egin ziren egun desberdinetan, bat euskeraz eta bestea gazteleraz. Gure helburu nagusia euskerazko aurkezpena bultzatzea zen, bertara ahalik eta pertsona gehienak etortzea lortuz. Bagenekien ez zela erreza, eta horregatik gure helburua xumea zen, 8 pertsona etortzea zen helburua. Biler horietan paper nagusia zuzendaritzak du, baina kasu honetan, Euskera Batzordeko bi kide ere izan gera bileretan, guraso horiek ikus dezaten gurasoek euskarari ematen diogun garrantzia.

Baina azkenean ez genuen helburua lortu. 2 pertsona besterik ez ziren etorri euskerazko aurkezpenera, eta gaztelerakora 16 (uste baino gutxiago ere). Hasera baten burumakur genbiltzan, egindako lanak ez zuelako uste genuen emaitza izan. Baina berehala ohartu ginen, guzti hau fondoko laisterketa bat dela, eta ekintza honek ere, herrian gure eskolak duen fama gutxinaka aldatzeko balio izan duela.

3.8 Facebook-eko perfila sortu

Esparrua: herria

Ekintza mota: erakartzea

Gaur egun sare sozialek duten oihartzuna ikusita, egokitzen jo genuen gure batzordearen perfila sortzea eta modu horretara, aproposak iruditzen zaizkigun mezu eta ekintzak zabaltzeko erabiltzea.

Lehenengo perfila sortu beharra zegoen eta gutxinaka lagunak gehitzen joan sortutako perfilera, horrela, zenbat eta lagun gehiago, orduan eta zabalago iritsiko dira gure mezuak.

Helburu zehatzik gabe sortu genuen perfila, 50 bat lagun izateko ideiarekin, baina modu aktiboan jardun ondoren, hilabete baten buruan lagun kopurua dexentekoa izatea lortu degu, 182 inguru bait dira lagunak.

Guzti honen giltza aktibo izatea da, bi egunetik behin mezu bat bidaltzea lortzen ari bait gera, eta horrek presentzia ematen digu sarean. Normalean, beste elkarte eta erakundeetako mezu edo ekintzak zabaltzen ditugu, baina gure ekintzen berri emateko ere erabili da perfila.

Ekintza honekin otsailan hasi ginen, eta iruditzen zaigu bidea asko erraztuko digula etorkizunean egiten ditugun ekintzetan, arazoetako bat izan ohi bait da, jendeak egindakoaren berri izatea. Modu honetan errazago iritsiko da mezua.



3.9 Eskolaz kanpoko jarduerak

Esparrua: eskola

Ekintza mota: hobetzea

Sasoeta-Zumaburu Ikastetxean, eskolaz kanpoko jardueretan guraso elkartearen parte hartzea nabarmena da antolakuntzan. Jarduerak gurasoek aukeratzen ditugu, eta irakasle eta begiraleak bilatzearen ardura ere guregan hartzen degu.

Eskolaz kanpoko jardueretan euskeraren erabilera bereziki zaintzeko beharra ikusi degu guraso elkartearen. Ume gehienek gaztelerara jotzeko ohitura dute eskolan, baina garrantzitsua da irakasle eta begiraleek erreferente lana egitea umeekin, eta umeei ikus dezatela erreferente horiekin euskeraz egin behar dutela.

Horregatik Ebete Aholkularitzaren laguntzaz erizpide batzu erabaki genituen, eskolaz kanpoko jardueretan euskeraren erabileraren inguruan, eta erizpide horiek irakasle eta begiraleei zabaldu zaizkie. Eta aldi berean, irakasle eta begiraleekin jarraipen bilera batzu egitea komenigarria dela ikusi degu, horrela argi izan dezaten guretzeko gai garrantzitsua dela, eta aldi berean ikusi ahal izateko sortzen diren arazoei guztion artean nola aurre egin.

Oraingoz erizpideak ezarri ditugu eta hauek zabaldu ditugu, baina jarraipen sistematika oraindik ez degu martxan jarri. Horretarako eskolaz kanpoko jarduerak antolatzea arduratzen den batzordearekin bilera egin beharra degu, sistematika adostu eta martxan jartzeko. Hurrengo urtean ekintza hau erabat zabaldua izatea espero degu, hiru hilabeteko bilerak antolatuz.

3.10 Eskolako zuzendaritzari babesa eman euskararen erabileraren alde ematen ari diren pausoetan

Esparrua: eskola

Ekintza mota: hobetzea

Euskerarekiko jarrera berezia degun gurasoen kezken aurrean, eskolako umeen artean euskeraren erabilera sustatzeko helburuarekin, eskolako zuzendaritza pauso ausartak ematen ari da. Eta beharrezkotzat jotzen degu, pauso horien aurrean, gurasoek babesa ematea zuzendaritzari.

Argi dago betiko gauzak egiten baditugu, emaitzak ere betikoak izango direla, eta gure kasuan hori aldatu beharra dago, betiko emaitza hobetu beharra bait degu. Baina aldaketen aurrean denok ez dira beti gustura egoten, eta horregatik da garrantzitsua zuzendaritzak gure babesa jasotzea.



BURUNZPE

SASOETA-ZUMABURU
GURASO ELKARTEA

AMPA DE
SASOETA-ZUMABURU

Aurtengoan, bi aldaketa nagusiren aurrean izan nahi degu aktibo euskera batzordetik zuzendaritzari babesa emanaz. Alde batetik, jolas garaietan euskeraren erabilera sustatzeko asmoarekin ematen ari diren aldaketekin. Eta bestalde batetik, klase garaian ere umeen euskeraren erabilera eta aberastasuna hobetzeko asmoz martxan jarri den programa berritzailearen inguruan. Biak proiektu pilotoak dira, ta emaitzen araberakoa izango da datozen urteetan beraien jarraipena. Horregatik ez degu memoria honetan proiektu horien inguruan sakondu nahi, baina bai aipatu guretzat duten garrantzia.



4. INDIKADOREAK

Proiektu honen emaitzak epe luzekoak dira, helburua ere epe luzekoa bait da. Dena den, proiektuan zehaztutako ardatzak eta ekintzak neurtzeko asmoarekin, zenbait indikadore ezarri dira, bai kuantitatiboak eta baita kualitatiboak. Jarraian aipatzen ditugu, bertan ezarritako helburu ta emaitzari buruzko komentarioak ere aipatuz.

4.1 Indikadore kuantitatiboak

2012-13 INDIKADOREA	HELBURUA Ira-Eka	LORPENA Ira-Mar	Esplikazioa
1. Euskera Batzordearen kontsolidatzea	Bai	Bai	2012 urteko otsailean eratu genuen batzordea, eta 2012/13 kurtsoan batzordea kontsolidatu degu eta ekintzak aurrera eramaten hasi gera.
2. E.B.-ren kide kopurua	5	5	5 kide hasi ginen eta denok jarraitu degu batzordean modu aktiboan.
3. E.B.-ren bilera kopurua	Hilabetean 1	Hilabetean 2-3	Ekintza kopurua dela eta, bileren maiztasuna uste baino handiagoa izan da. Eta momentu zehatz batzuetan, astean 2-3 bilera izatera iritsi gera (Maratoiaren bezperan esate baterako).
4. E.B.-ren ekintza kopurua	6	6	Maratoia, Euskararen Eguna, Matrikulazio garaia, korrika, eskolaz kanpoko ekintzak, facebook perfila. Ekaineko festa faltako litzateke.
5. Euskara Taldearen kide kopurua	15	20	Haseran aktiboki bultzatu genuen taldeko kideen bilaketa eta agian komeni da berriro ere bultzada bat ematea kide kopurura gehitzeko asmoarekin.
6. Mezua adostua	Bai	Bai	19 proposamenen ondoren mezua adostu genuen eta gainontzeko ekintzetan zabaltzen joan gera
6. Maratoiaren antolakuntzan parte hartzea	Bai	Bai	Helburu garrantzitsua zan hau, herri mailako euskal ekintza nagusia bait da, eta gure presentzia nabarmena izan zen.
7. Maratoian parte hartutako guraso kopurua	20	20	Euskara Batzordeaz gain, Euskera Taldeko eta Guraso Batzordeko gainontzeko gurasoek parte hartze aktiboa izan genuen.
8. Maratoiko Benedika mendira eginiko irteeran parte hartutako pertsona kopurua	25	11	Benedika mendira txandak antolatu ziren, eta euskara batzordeak txanda bat hartu zuen. Txanda bakoitzean 25 pertsonen parte hartzen dute. Baina eguraldi txarraren ondorioz 11 pertsona elkartu ginen. Dena den, beste talde batekin elkartu ginen (Lasarteko AEK) eta horrela taldea osatu genuen.



9. Matrikulazio garaiko euskerazko bilerara etorritako guraso kopurua	8	2	Helburu hau da lortu ez degun bakarra. Helburua ez zen oso altua ere, baina hori ere ez genuen lortu. Lanean jarraituko degu, hurrengo urtean helburua lortzeko asmoarekin.
10. Matrikulazio garairako prestatutako bideoa ikusi duten pertsonen kopurua	100	243	Internet bidez eman zitzaion zabalkundeari esker (facebook, lasarteoriansarean...), uste baino jende gehiagok ikusi zuen bideoa. Jarraian lotura: http://youtu.be/IVpZKS66q-l
11. Facebook-eko lagun kopurua	50	182	Otsailean martxan jarri genuen perfila, eta lagun kopurua uste baino askoz handiagoa izatea lortu degu
12. Korrikan banaturiko bixera kopurua	100	195	Korrika egunean eskolatik parte hartutako guraso ta ikasle kopurua uste baino handiagoa izan zen. Eskolan egindako kanpainak eta eguraldi bikainak lagunduta, 5 bixera baino ez ziren geratu soberan.

4.2 Indikadore kualitatiboak

2012-13 INDIKADOREA	HELBURUA Ira-Eka	LORPENA Ira-Mar	Esplikazioa
1. Guraso Elkartearen euskara erabilera	Handitzea	Nabarmen handitu da	Guraso elkartean dauden bost batzordeetatik batean (euskara batzordea), euskara hutsean komunikatzen gera. Ta gainontzeko batzordeetan ere euskeraren erabilera indartzen doa, guraso elkarteko bi herenek euskeraz hitzegiteko gaitasuna bait degu.
2. Guraso Elkartearen euskerarekiko jarrera	Euskeraren ikuspuntua izatea egiten diren ekintza guztietan	Beti izaten da kontuan euskeraren ikuspuntua, sustapen maila altuarekin	Euskerarekiko jarrera positiboa dago guraso batzordean, egiten diren ekintza guztietan, euskeraren erabilera sustatzen delarik.
3. Lasarte-Orian eskolaren irudia	Euskerarekiko aktibo	Helburua lortu da	Lehen aipatu bezela, Lasarte-Orian, gure eskola ez da euskerarekin lotua izan, nahiz eta zuzendaritzak eta irakasleek lan bikaina egin gure umeak euskalduntze bidean. Aurten berriz, aurrera eraman diren ekintzekin, argi geratzen ari da herrian, gure ikastetxearen apustua zein den.
4. Eskolako umeen hizkuntza ohiturak	Gelan erabiltzeaz aparte, patioan eta klase amaieran ere erabiltzea	Baxua	Hizkuntza ohituren aldaketa ez da erreza. Medioak jartzen ari dira, ta gutxinaka zeozer aldatzen ari gera, baina oraindik ere gure umeen arteko hizkuntza ohitura nagusia gaztelera da. Honetan lan egiten jarraitu beharko degu.



BURUNZPE

SASOETA-ZUMABURU
GURASO ELKARTEA

AMPA DE
SASOETA-ZUMABURU

1. ERANTSIA. EBETE-REN HITZALDIAREN KARTELA



Zuek duzue giltza.

Euskararen erabilera

Sasoeta-Zumaburuko ikasleen artean.

Gurasoentzako saioa

Eguna: Ekainak 14, osteguna

Ordua: 18.00

Lekua: Sasoetako egoitza

- ■ Hizlaria eta dinamizatzailea: Iñaki Eizmendi.
- ■ Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko hainbat gurasoren kezka bat aztertu nahi da saio honetan. Bi hizkuntza ofizial dituen gizarte batean bizi gara, baina bi hizkuntzen egoera soziala ezberdina denez horrek eragina du bai ikaste prozesuan baita erabileran ere.
- ■ Ekainean egingo den saio honetan guraso euskaldunon kezka nagusienetako bat aztertuko da: seme-alaben euskararen erabilera.

Zer dago euskararen erabileraren eta hizkuntza-ohituren oinarrian? Nola aukeratzen ditugu hizkuntzak?

Nola lagundu seme-alabei euskara erabil dezaten lagunartean eta beste hainbat harremanetan?

Ikastetxeak ikasleek euskara eta gaztelania ondo ikastea eta euskararen erabilera indartzea nahi du. Zer egin dezake guraso bakoitzak bere aldetik edota guraso talde moduan ikastetxeari laguntzeko?

Vivimos en una sociedad con dos lenguas oficiales: euskera y castellano. Uno de los objetivos de la escuela y de los/las padres y madres es que aprendan bien las dos lenguas, pero surgen dudas en torno al aprendizaje y al uso. En esta charla se pretende analizar una de las dudas de muchos padres y madres que saben euskera: ¿Cómo ayudar a los/las hijos/as a que utilicen euskera?



Haurtzaindegia zerbitzua egongo da.



Hitzaldia **euskaraz** izango da.
La charla será en euskera.

Antolatzailea:

SASOETA-ZUMABURU IKASTETXEKO
GURASOEN EUSKARA BATZORDEA



BURUNZPE

SASOETA-ZUMABURU
GURASO ELKARTEA

AMPA DE
SASOETA-ZUMABURU

2. ERANTSIA. HASERA BATEN EGINDAKO BILEREN LABURPENA

EUSKERA BATZORDEA

HELBURU NAGUSIA:

- Euskararen erabilera sustatzea bai gelan, bai jolas garaian, bai jangelan eta baita eskola garaiko gainontzeko ihardueretan.

BIGARREN MAILAKO HELBURUAK:

1. Gurasoen artean euskararen erabileraren aldeko kezka garatzea.
2. Euskeraz hitzegiteko erraztasuna duten umeek konpetentzia hori garatzeko aukera izan dezatela.
3. Lehen hizkuntza euskara ez duten umeen euskerarekiko progresio positiboa bultzatzea.
4. Proposatzen diren ekintzak aurrera eraman ahal izateko diru iturriak izatea.

PROPOSATZEN DIREN ZEINBAIT PAUSO:

1. Inguruko erakundeekin elkarlana bultzatu. Horretarako zenbait ekintza:
 - a. Zuzendaritzarekin bilera. Helburu berdina degu beraz ekintzak elkarlanean egitea interesgarria da. Gainera euskara sustatzeko jadanik egiten ari diren ekintzen berri izatea komeni da, gurasoek ere lan horretan bultzatzeko.
 - b. TTAKUN. Beraiekin harremana estutzea.
 - c. BAIKARA. Arlo honetan egin daitezken ekintzen inguruan informazio dextente dute, ta esperientzia zabala.
 - d. LANDABERRI. Antzeko arazoa dute beraiek, eta ekintzak elkarlanean eginez gero, emaitza hobeak izango dira.
2. Euskara Batzordea osatzen degun guraso taldea handitu. Eskolan badira guraso euskaldun gehio, eta taldea zenbat eta handiagoa izan indar gehio izango degu gure ekimenak aurrera eramateko.

HELBURUAK LORTZEKO ZENBAIT EKINTZA POSIBLE:

- Eskolako sarreran, irteeran eta jolasean Euskal musika jarri letra ulergarriekin eta errepikatzeke erraza. Ez da beharrezkoa gelan lantzen dituztenak izatea.
- Jolas garaian begirale euskera dinamizatzaille bat jarri (hemen pegarik handiena dirukontua da).
- Eskolak planteatzen zuen agian banatuko zituztela taldetan euskaldunak eta erdaldunak zenbait jolas momentuetan, baina zenbait guraso ez daude ados. Zuzendaritzarekin komentatu beharko degu aukera hau. Hausnarketa egin beharko degu ikusteko gaur egungo errealitatea zein den (erdera hutsean ari ote

diren umeak edo ez...) eta begiraleak jarritz gero konpondu ote daiteken. Agian tarteko aukerak bilatu behar dira baina lehen pausoa zuzendaritzarekin hitzegitea izan beharko litzateke.

- Zuzendaritzari babesa ematea, datorren urtean egin nahi duten gelen banaketa aurrera eramateko. Hau da, gelak mantenduz, zenbait materiaren euskeraren erraztasuna duten umeak biltzea, eta horrela gainontzeko umei errefortzuak jarri ahal izatea euskararen erabilera garatzeko. Aztertu beharko litzateke, aukera hau maila ezberdinetako umeak nahastuz egitea posible eta positiboa ote den.
- Lasarte-Oria inguruan egongo diren euskal ekintzen inguruan (filmak, antzerkiak, emanaldiak...) boletín bat prestatu bi hizkuntzetan. Txintxarri ulertzen ez dutenak askotan informazio hori ez dute eskuragarri.
- Aztertu beharko genuke extraeskolarrak zein hizkuntzetan eman behar diren (gaztelarazko aukera, ingelesezko aukera...). Kontuan izan behar dugu D ereduen gaudela. Inglesaren aukera positibo bezala somatzen da guraso taldean.
- Gurasoentzako euskaltegia bultzatu eta parte hartzeko erraztasunak eman (ume zaintza zerbitzua...).

EUSKERA BATZORDEA

ZUZENDARIAREKIN IZANDAKO BILERAREN LABURPENA

EGUNA: Martxoak 9, 16:00-18:00

PARTAIDEAK: Gurutze, Josu Riezu, Marga

LABURPENA:

- Margak dokumentazio dexente eman zigun, eskolan euskararen inguruan egindako ekintzen inguruan eta baita aurkezpen bat ere euskera berreskuratzeko teorien inguruan. Hau da dokumentazioa eta eskaneatuta laburpen honekin batera atxikita doa:
 - o Sasoeta-Zumaburu 1997 2004: eskolan, garai horren bitartean egindako ekintzak.
 - o Sasoeta-Zumaburu 2011 2012: aurtan euskararen inguruan egingo diren ekintzak eta udaletxeak finantziatzen dituenak.
 - o Ulibarri1: Euskeraren inguruan eskolan egindako ikasturteko plana, helburu eta ekintzekin. Honen inguruan, azken orrian interneteko klabeak daukazute.
 - o Ulibarri2: hizkuntza normalkuntza prozesua lantzeko gogoetak
 - o Ulibarri3: Euskera berreskuratzeko klabeak eta hizkuntzen teoria soziala
 - o Euskera bizi: euskeraren inguruan eskolak ateratako dokumentu bat
- Eskolak udaletxearekin harremana du eta AMPA-ren inguruan euskara bultzatzeko mugimendua hasi zela ikusirik, badirudi udaletxea prest dagoela espezialista baten zerbitzuak kontratatzeko. Margak udaletxearekin izandako bileraren laburpena eskaneatuta doa ere:
 - o Udaletxea: Udaletxeekin izandako bileraren laburpena
 - o Iñaki Eizmendi: pertsona honen artikulua bat ere atxikita doa. Udaletxeak pertsona hau du referentzia bezela espezialista bezela laguntzeko.
- Espezialista horren laguntzaz zenbait ekintza antola ditzakegu. Helburua izango litzateke datorren urterako gauzak antolatzen joatea, baina interesgarria ikusten da zuzendaritza aurtan ere ekintzaren bat egitea, horrela euskeraren inguruan erreferente bezela jartzen has gaitezen Lasarten Sasoeta-Zumaburu.
- Azkenik duda konkretuetaz hitzegiten egon ginen:
 - o Jolasgaraietan umeak ez dira hizkuntzaren arabera banatuko. 1 eta 2 mailako umeak alde batetik, eta 3, 4 eta 5 mailakoak bestetik egongo dira. Hori da egingo den banaketa, ze 1 eta 2 mailako umeak errezagoak dira irakasle baten influentziaz jolas garaian euskeraz aritzea. (Berak aipatzen zuen irakasle edo baita ikasle helduagoak ere).
 - o Datorren urtean zenbait materia emateko orduan, hizkuntza konpetentziaren arabera egingo dira taldeak. Komentatzen egon ginen, hau gure taldean egiteaz aparte, beste adinetan ere egingo ote den. Esan zigun, momentuz, gure adinekoetan egingo dutela. Aldaketa handia dela, eta gutxinaka joan behar direla.
 - o Komentatzen egon ginen ere klase garaian euskararen erabilera zenbatekoa zen. Esan zigun diferentzia somatzen dela urte hasera eta amaiera bitartean. Dena den, gauza guzti hauek espezialistarekin aztertu beharko ditugu. Hau da,

klasean ez bada euskeraz hitzegiten, ba hori hobetzeko ekintzak egin beharko ditugu. Jolasgaraian ez bada hitzegiten, hori hobetzeko ekintzak...

- Konklusio bezela:
 - o 1. Oso jarrera irekia zuzendaritzaren aldetik. Oso pozik daude aurten gurasoak erakusten ari geran gogoekin, bai euskeraren asuntoan eta baita gainontzeko ekimenetan ere.
 - o 2. Bagenekien bezela, euskerarekiko jarrera oso positiboa dago. Gauzak egiteko gogoia eta Lasarten erreferente izateko gogoia.
 - o 3. Hurrengo pausoak:
 - 1. Dokumentazioa irakurri
 - 2. Euskera batzordearen dinamika antolatu (noiz elkartu, eskolarekin zenbatero elkartu...)
 - 3. Ekintzak aurrera eramaten hasi (tartean udaletxearen laguntza horrekin espezialista bat izateko)

LEKUA, EGUNA: Sasoeta, 2012ko Martxoak 23

PARTAIDEAK: Gurutze, Ikerne, Mendi, Josu

LABURPENA:

- Aurreko bileren laburpenak adostu eta onartu ziren. AMPA-ren blog-an orain arte prestatutako bi dokumentuak igoko dira (Josu arduratuko da).
- Azken astean Margak proposatu zigun Udaletxearekin (Iñaki Arruti) bilera egiteko. Bileraren helburua izango litzateke udaletxeak pertsona baten zerbitzuak ordaintzea, Zumaburu-Sasoetan euskeraren erabilera sustatzen lagunduko duen espezialista bat. Iñaki Eizmendi espezialistaren proposamena da mahai gainean dagoena. Izatez planteamendua izango litzateke, ahal izanez gero, bilera horretan Euskera batzordea, ikastolako zuzendaritza, udaletxea eta Iñaki Eizmendi egotea. Apirilaren 20-a proposatzen zaio Margari bilera hau egiteko. Ekintza oso positiboa dela uste degu denok.
- Interesgarria ikusten da guraso gehio inplikatzeari Euskera batzordean. Azken finean ekintzak aurrera eramateko, zenbat eta gehio izan, orduan eta errazagoa izango da.
- Zenbait aktibitate inguruan ere aritu ginen:
 - o Aurtan da Euskeraren Maratoia Lasarten . Bertan parte hartze nabarmena izatea interesgarria ikusten da.
 - o Ttakun-ek gure ikastolari tratamendu on bat ematea ere komenigarria ikusten da. Hau da, beraien ekintzetan gure eskolaren kalendarioa ere kontutan hartzea, eta ez bakarrik Landaberri-rena.
 - o Boletín erraz bat sortzea ere interesgarria ikusten da, Lasarte eta inguruan egingo diren euskerazko ekintzetaz guraso guztiak informatzeko. Txintxarrin agertzen diren ekintza asko, euskeraz soilik daudenez, ez dira guraso askoren eskutara iristen. Ondorioz bi hizkuntzetan prestatu daiteke boletín labur bat. Distribuziorako interesgarria ikusten da e-maila erabiltzea.

LEKUA, EGUNA: Sasoeta, 2012ko Apirilak 20

PARTAIDEAK:

GURASOAK: Gurutze, Ikerne, Mendi, Izaskun, Josu

ESKOLA: Marga

UDALETXEA: Iñaki Arruti

EBETE: Iñaki Eizmendi

LABURPENA:

- Aurreko urtean, umeen arteko euskararen erabileraren inguruan, guraso batzuk kezka adierazi zioten ikastolako zuzendaritzari. Horren arira, gurasoen artean euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera zuen kolektibo bat zegoela ikusi zen.
- Aurten, gurasoen elkartea bultzatzeko garaian, lan talde ezberdinak osatu ziren. Ikastolako zuzendaritzak euskera batzordea osatzeko eskaera egin zuen, lehengo urteko kezka ikusirik. Horrela sortu zen Euskara Batzordea guraso elkartearen barruan.
- Euskara Batzordea bost gurasok osatzen dute momentuz. Baina bada beste guraso kolektibo handiago bat, batzordean parte hartu nahi ez duena, baina euskera sustatzeko interesa duena. Horrela euskera taldea osatzen ari gera, euskera batzordeak egiten dituen ekintzen inguruan informazioa izango duen guraso taldea, ta ekintzen inguruan eritzia eman eta parte hartzeko interesa izango duena.
- Lasarte Oriako udaletxeak euskararekin zerikusia duten erakundeekin hitzarmenak sinatuak ditu (4 eskolak, Ttakun, 2 euskaltegi). Zumaburu-Sasoeta ikastolekin duen hitzarmena guraso elkartearen bidez bideratzen da, CIF bat beharrezkoa bait da.
- Iñaki Eizmendik esperientzia dexente du euskera sustatzeko garaian eman beharreko pausoen inguruan. Eskola askotan ibilia da guk behar ditugun ekintzak bultzatzen. Bileran gauden guztioi interesgarria irudituz zaigu Iñaki Eizmendiren laguntza jasotzea Sasoeta-Zumaburu ikastolan euskeraren erabilera bultzatzeko.
- Iñaki Eizmendik egingo duen lanaren inguruan proposamen bat bidaliko du. Ez da konkretatu lan horrek izango duen kostua nork eta nola asumituko den, nahiz eta komentatu den datorren urtean Udaletxearekin izango degun hitzarmenaren barruan sar daitekela.
- Bileran argi geratzen da gurasoen inguruan ekintzak egin behar direla, beraiek duten euskararekiko jarrera indartzeko, ta horrela, zeharka umeek ere jarrera positibo hori etxean soma dezaten. Baina ez da eragin behar den kolektibo bakarra. Eskola garaiko momentuak irakasleek gainbegiratzeko dituzte, baina badira jolasgarai, jangela, eskola orduz kanpoko aktibitateak, non umeen arteko hizkintza euskera izateko baliabideak edo motibazio bideak jarri behar diren.
- Hurrengo pausoak hauek izango lirateke:
 - o Iñaki Eizmendik proposamen bat luzatuko digu.
 - Proposamen horren puntuetako bat, euskara batzordeko (eta euskera taldeko) gurasoen autoformazioa da, gainontzeko gurasoen aurrean euskararekiko jarrera positiboa nola argudiatu. Zentzu honetan, denek argumentazio berdina erabiltzeko, irakasleak ere formatzea interesgarria ikusten da.

- O Eta ondoren ekintzen programazioa etorriko litzateke, Iñaki Eizmendiren laguntzarekin prestatutako ekintzak.
 - Ekintzen inguruan denok ados gaude, hauek ondo pentsatu behar direla eta ondo planifikatu. Ez dira asko izan behar, baizik eranginkorrak.
 - Bi momentu apropos ditugu epe motzean, Ikastolako Jaialdia eta Euskeraren Maratoia. Bi momentu hauek interesgarriak dira gure eskolak euskeraren inguruan duen jarrera positibo eta aktiboa adierazteko.

EUSKERA BATZORDEAREN BILERA

EGUNA TA LEKUA: Sasoetan, Maiatzak 18 16:00

PARTE HARTZAILEAK:

- Marga (ikastola)
- Iñaki Eizmendi (Ebete)
- Gurutze (AMPA)
- Izaskun (AMPA)
- Mendi (AMPA)
- Josu (AMPA)

LABURPENA

Bileran bi gai nagusi komentatu ziren:

- Alde batetik EBETE-ren proposamena:
 - o Onartua izan zen
 - o 600 Eurotako presupuestoa, datorren urteko eskola-udaletxearen hitzarmenean sartuko da.
 - o Lehen ekintza, Euskara Batzordeko gurasoekin eta osatu berri den Euskera Taldeko gurasoekin (gainontzeko gurasoei ere irekia izango dena) bilera bat egitea izango da. Bertan EBETE-k hitzaldi bat emango digu, ta bertan umeen hizkuntza ohituren oinarrian zer dagoen aztertuko da, eskolaren mugak ikusiko dira eta erabileran eragiteko kontuan izan beharreko oinarriak aztertuko dira.
 - o Ekintza hau ere irakasleetzat egitea egoki ikusten da, bai guraso eta bai irakasleak koordinaturik egoteko.
- Beste alde batetik, orain arte izandako Euskara Batzordeko bileren laburpena egin zen, eta jarraian ideia nagusiak:

HELBURU NAGUSIA:

- Euskararen erabilera sustatzea bai gelan, bai jolas garaian, bai jangelan eta baita eskola garaiko gainontzeko ihardueretan.

BIGARREN MAILAKO HELBURUAK:

1. Gurasoen artean euskararen erabileraren aldeko kezka garatzea.
2. Euskeraz hitzegiteko erraztasuna duten umeek konpetentzia hori garatzeko aukera izan dezatela.
3. Lehen hizkuntza euskara ez duten umeen euskerarekiko progresio positiboa bultzatzea.
4. Proposatzen diren ekintzak aurrera eraman ahal izateko diru iturriak izatea.

PROPOSATZEN DIREN ZEINBAIT PAUSO:

1. Inguruko erakundeekin elkarlana bultzatu. Horretarako zenbait ekintza:
 - a. Zuzendaritzarekin bilera. Helburu berdina degu beraz ekintzak elkarlanean egitea interesgarria da. Gainera euskara sustatzeko jadanik egiten ari diren ekintzen berri izatea komeni da, gurasoek ere lan horretan bultzatzeko.
 - b. TTAKUN. Beraiekin harremana estutzea.
 - c. BAIKARA. Arlo honetan egin daitezken ekintzen inguruan informazio dextente dute, ta esperientzia zabala.
 - d. LANDABERRI. Antzeko arazoa dute beraiek, eta ekintzak elkarlanean eginez gero, emaitza hobeak izango dira.
 - e. UDALETXEA. Beraiekin harremana estutzea.
2. Euskara Batzordea osatzen degun guraso taldea handitu. Eskolan badira guraso euskaldun gehio, eta taldea zenbat eta handiagoa izan indar gehio izango degu gure ekimenak aurrera eramateko.

EMAN DIREN PAUSOAK

- Zuzendaritzarekin bilera
- Udaletxearekin bilera
- EBETE-rekin (euskera eskola mailan sustatzeko espezialista den aholkularitza). Bere proposamena degu mahai gainean
- Euskara batzordearen egitura osatzea:
 - o Euskara Batzordea:
 - Gurutze
 - Izaskun
 - Ikerne
 - Mendi
 - Josu

O Euskara Taldea

- Mai
- Jorge
- Leire
- Patricia
- Sonia
- Eli
- Idoia
- Irune
- Andrea
- Mamen
- Luisa
- Pello
- Jesus
- Amaia

HELBURUAK LORTZEKO ZENBAIT EKINTZA:

- Ebeste-ren laguntza izango degu ekintzak planteatzeko garaian
- Orain arte, bileretan komentatu diren aukerak hauek izan dira:

1. GURASOEN EUSKERAREKIKO DUTEN SENSIBILIZAZIO MAILA HANDITzea

- Lasarte-Oria inguruan egongo diren euskal ekintzen inguruan (filmak, antzerkiak, emanaldiak...) boletín bat prestatu bi hizkuntzetan. Txintzarri ulertzen ez dutenek askotan informazio hori ez dute eskuragarri.
- Gurasoentzako euskaltegia bultzatu eta parte hartzeko erraztasunak eman (ume zaintza zerbitzua...).

2. ESKOLA ERREFERENTE BIHURTzea EUSKERAN

- Eskolaren jaialdiak aprobetxatu
- Euskal astea aprobetxatu
- Euskararen Maratoia aprobetxatu
 - O Sasoeta-Zumaburu-ren presentzia nabarmena izan dadila, eta elementu identifikatzaile argi bat izan dezagula
- Korrika aprobetxatu
- Eskolako aldizkaria aprobetxatu
- TTAKUN-ekin harremana estutu, gure eskola ere kontuan izan dezaten ekintzak antolatzekeo garaian.

3. EUSKERAREN ERABILERA BERMATZEA (KLASEAN, JOLASGARAIAIN, JANGELAN, EXTRAESKOLARRETAN)

Klasean

- Eremu profesionala dela kontuan izanik, Euskara Batzordearen intentzioa lana nola egiten den ezagutu, eta beharra izanez gero laguntza eskeintzea izango da, inola ez, eremu honetan adituak direnen (irakasleak) lana eta profesionaltasuna dudak jartzea.
- Zuzendaritzari babesa ematea, datorren urtean egin nahi duten gela banaketa aurrera eramateko. Hau da, gela mantenduz, zenbait materiaren euskeraren erraztasuna duten umeak biltzea, eta horrela gainontzeko umei errefortzuak jarri ahal izatea euskararen erabilera garatzeko. Aztertu beharko litzateke, aukera hau maila ezberdinetako umeak nahastuz egitea posible eta positiboa ote den.
- Klase barruan umeen euskararen erabilera sustatzeko lagunduko duen edozein ekintzari babesa ematea.

Jolasgaraian

- Eremu profesionala dela kontuan izanik, Euskara Batzordearen intentzioa lana nola egiten den ezagutu, eta beharra izanez gero laguntza eskeintzea izango da, inola ez, eremu honetan adituak direnen (irakasleak) lana eta profesionaltasuna dudak jartzea.
- Eskolako sarreran, irteeran eta jolasgaraian Euskal musika jarri letra ulergarriekin eta errepikatzeko erraza. Ez da beharrezkoa gela lantzen dituztenak izatea.
- Jolas garaian begirale euskera dinamizatzailerik bat jarri (agian ikasle helduagoak, irakasleei esfortzua eskatu...).

Jangelan

- Begirale euskera dinamizatzailerik jarri errefortzu bezela, umeen artean euskeraz hitzegiteko.

Extraeskolarretan

- Aztertu beharko genuke extraeskolarrak zein hizkuntzatan eman behar diren (gaztelarazko aukera, ingelesezko aukera...). Kontuan izan behar degu D ereduen gaudela. Ingelesaren aukera positibo bezela somatzen da guraso taldean.

EUSKERA BATZORDEAREN BILERA

EGUNA TA LEKUA: Sasoetan, Uztailak 10 16:00

PARTE HARTZAILEAK:

- Marga (ikastola)
- Iñaki Eizmendi (Ebete)
- Ikerne (AMPA)
- Gurutze (AMPA)
- Izaskun (AMPA)
- Mendi (AMPA)
- Josu (AMPA)

LABURPENA

Euskara Batzordea sortu zenetik egin diren ekintzen laburpena aipatu zen:

- Eskolako guraso euskaldunekin Euskara Taldea osatu da. Momentuz 20 pertsonak osatzen degu taldea.
- Kanpo laguntza bilatu da, gure eskolan euskararen erabilera sustatzen lagunduko digun espezialista baten laguntza.
- Euskara Taldeari zuzenduta lehen hitzaldi bat antolatu genuen. Gure umeen hizkuntz erabileraren oinarrian zer dagoen aztertu genuen, ta horrela euskararen erabilera nola sustatu daiteken ikusi genuen.
- Extraeskolarren hizkuntzaren inguruan debatea sustatu genuen guraso elkarte barruan, eta eskolaren eredia jarraitzea onartu da (D eredia).
- LH1 mailako umeekin proiektu piloto bat egingo da, taldeak orain arte bezela mantenduz zenbait materiatan, ta hizkuntz konpetentziaren arabera beste materia batzutan. Proiektua oso interesgarria dela uste du Euskara Batzordeak, eta baita eskolako zuzendaritzak, umeen euskararen erabileran hobekuntza lortzeko bidea izan daitekela uste bait da. Interesgarria jotzen da haur hezkuntzan ere hizkuntzaren konpetentziaren arabera momentu batzuetan gela birbanaketak egitea.
- Zenbait bilera mantendu dira Lasarte-Oriako hainbat eragilerekin, euskararen sustapenean elkarlanean aritzeko asmoz: Udaletxea, Ttakun, Baikara.

2012/13 ikasturterako ekintza plangintza bat beharrezkoa ikusi genuen. Iñakik zirriborrea prestatuko du. Zenbait puntu kontuan izateko:

- Plangintza horretan pautak, bitartekoak eta norberak egin beharrekoak izan beharko ditugu kontuan:
 - o Pautak: adibidez kurtsoko zein bileratan zein material eta zein mezu zabalduko diegun (nork, zer, nola).

- o Bitartekoak: tresnak eta bitartekoak behar ditugu gurasoei zabaltzeko, eta horrela gurasoek erabili ahal izateko beraien umeei.
- o Norberak: ohiturak hartzea bultzatu behar degu, norberak hitz batzuk ikasi eta erabili, telebista euskaraz jartzea...
- Honetarako aipatu genituen hainbat ideia:
 - o Irakasleek gurasoei materiala eta mezuak zabaltzea. Horretarako irakasleek prestakuntza bat izatea beharko genuke.
 - o Gurasoen Elkartetik antolatzen diren ekintza guztietan mezuak txertatzea. Zentzu honetan slogan sendo baten beharra antzematen da, Zumaburu-Sasoeta eta euskararen arteko erlazioa lotuko duen slogan bat. Irailarako proposamenak aurkeztekoan geratzen gera.
 - o Ikasleak izatea eragileak. Zentzu honetan umeei erronka egiten badiegu, beraiek izan daitezke eragileak gurasoen euskerarekiko jarrera aldatzeko. Adibidez, euskararen maratoiaren erronka izan daiteke, gurasoekin saludo guztiak euskaraz izatea.
- 3 mailatan eragiten saiatu behar gera:
 - o Etxea (gurasoek euskerarekiko duten sensibilizazio maila handitzea).
 - o Eskola (euskararen erabilera bermatzea klasean, jolasgaria, jangela eta extraeskolarrak).
 - o Herria (Eskola erreferente bihurtzea).

Maratoiaren inguruan ere aritu ginen. Zenbait ideia:

- Okendo plazaren erdigune izaera errespetatuz, Sasoeta Eskola ere Maratoiaren parte bihurtu nahi degu. Horretarako aukera egoki bezela ikusten da Okendon amaitzen den ekintza bat antolatzea. Adibidez buruhandiak Sasoetatik Okendora antolatzea. Horrela umeak Sasoetara joango lirateke buruhandien bila, eta handik Okendorantz abiatu.
- Ekintza zehatza izan beharko luke (1-2 ordu), gure antolatzeko ahalmena mugatua bait da.
- Umeak eskolara etortzen diren momentua aprobetxatu beharko genuke zenbait joku edo eskulan antolatzeko. Adibidez, eskolaren festan egin zen bihotza egiteko tailerrak jartzea. Horrela parte hartzen duten ume guztiek gure bihotza izango lukete. Ta Sasoeta-Zumaburu eskolakoek lehenago egin izan lezakete (eskolako eskulan bezela).
- Txokolatada edo puzgarriaren bat ere jartzean pentsa genezake.
- Lehen aipatu degun mezua edo slogan-a garrantzitsua izango litzateke hemen zabaltzea.
- Lehen aipatutako umeen eragile lana, hemen ere garrantzitsua izango litzateke. Helburu bat jarri beharko genuke (saludo guztiak euskeraz), eta umeei helburu hori lortzeko eginkizuna eman.
- Elementu identifikatibo bat izan denok. Adibidez eskolan eginiko bihotza. Guraso ta ume guztiek bihotz hori eraman beharko genuke, eskolaren presentzia nabarmena ikus dadin.

- Maratoian antolatzen diren gainontzeko ekintzetan eskolako pertsonen (guraso, ikasle, irakasle) presentzia bultzatu beharko genuke, gure elementu identifikatiboa eramango dutenak.

Amaitzeko beste zenbait puntu komentatu genituen:

- Matrikulario kanpaina tokatzen denerako, interesgarria izango litzateke euskeraren konpetentziaren arabera emango den tratamendua argi izatea, haur eskolatik lehen hezkuntzaraino (taldeen birbanaketak, modu naturalean eta hizkuntz konpetentziaren arabera), ta hori zabaltzea. Horrela guraso euskaldunak erakartzeko tresna izan liteke, ume euskaldunek euskera beste umeekin erabiltzeko izango duten aukera argia bait da.
- Jolasgarai eta jantoki ondorengo denbora libre zuzenduak egiteko interesa. Eskolak aztertu behar du zenbat jolasgarai den interesgarri zuzenduak izatea, zenbat egin ditzakeen irakasle eta ikasleekin, eta falta diren entzako fondoak bilatu beharko ditugu monitoreak jartzeko. Jantokiaren kasuan, interesgarria jotzen da euskeraren erabileraren sustapenean monitoreak trebatzea.
- Euskaltegiaren antolakuntza. Dirudienez Ttakun-ek zeozer du antolatua. Zentzu honetan ere Iñaki Arrutirekin hitzegitea komeni da.
- Euskera Taldearentzat aktibitateak antolatzearen inguruan ere aritu ginen. Baina zentzu honetan herriko ekintzak aprobetxatzea izan daitekela egokiena adostu zen.

EUSKERA BATZORDEAREN BILERA

EGUNA TA LEKUA: Sasoetan, Irailak 11 15:30

PARTE HARTZAILEAK:

- Iñaki Eizmendi (Ebate)
- Ikerne (AMPA)
- Gurutze (AMPA)
- Izaskun (AMPA)
- Josu (AMPA)

LABURPENA

Bilerak 3 gai nagusi izan zituen

1. Eskola eta euskera lotuko dituen slogan bat aukeratzea.
 - Zentzu honetan, transmititu nahi den mezu izango litzateke, Lasarte-Oria euskalduntzeko bidean Sasoeta-Zumaburu ikastetxea ezinbestekoa dela.
 - GILTZA hitza gustoko degu denok
 - Unai Muñoa bertsolariari laguntza eskatuko diogu zentzu honetan, ea berak esan nahi hori slogan moduan adierazi dezaken, eta agian bertsoren bat ere presta ote dezaken guretzat, esanahi horrekin.
2. Euskararen Maratoian gure parte hartzea zehaztea.
 - Ttakun-ekin ekainean egin genuen bilera ondoren, Ttakun-ekoekin hartu eman batzu egon dira. Ateratako konklusioak, beraiek irekita daudela egiten dizkiegun proposamenei (ez diote ezerri ezetz esan), baina ezin diote tratamendu berezi bat eman herriko eskola bati, bestearen gainetik edo bestea jakinaren gainean egon gabe.
 - Bestalde, Maratoiko larunbatean, umeen ekintzak amaitu ondoren (13:00 aldera), kalejira bat antolatuko dute, eta Zumaburutik pasatzea aukera egoki bezela ikusten dute, ta momentu hori aprobetxatzea. Sasoeta zailago ikusten dute, aldapa dagoelako eta kalejiran traktore batek musika banda bat tiratuko duelako. Hala ere ez diote ezezkorik eman Sasoetaren aukerari. Ziur aski indar piskat egiten badegu zentzu honetan, soluzio bide bat lor genezake.
 - Agian aprobetxa genezake kalejira Sasoetatik pasatzen den momentu hori, 15-20 minutuan ekintzaren bat antolatzeko (eskola mezuz josita egotea, sagardo-pintxo bat eskeintzea, buruhandiak ateratzea, denok eskolako bihotzarekin egotea eta etortzen direnei ere bihotza eskeintzea...)
 - Bestalde, Maratoiaren egitaraua ezagutzen degunean, antolatu beharko gera Sasoeta-Zumaburuko presentzia argia izan dadin, beti gure umeek egindako bihotzarekin. Ta gainera, adibidez egiten den mendi irteeratik bueltan, agian antolakuntzari oparitxo bat egitea (maratoiaren sinboloaren eskulana, edo esloganarekin lotutako zeozer-giltza...) horrela gure presentzia ta mezua tabladoan adierazteko.
 - Ttakun-eko Aitor gure zai dago, berriro ere ekainean bezela, bilera bat antolatzeko eskolako arduradun eta gurasoekin, eta gauzak zehazten joateko.

3. 2012/13 urterako ekintza plangintza zehaztea

- Iñakik plan zirriborroa espikatu zuen. Bertan egin beharreko ekintzak 3 helbururekin egin daitezkeela adierazten da:
 - o Fidelizatzea (dauzkagun ume euskaldunak mantentzea)
 - o Erakartzea (guraso euskaldunak erakartzea)
 - o Hobetzea (dauzkagunen euskerarekiko jarrera hobetzea)

Egiten degun ekintza bakoitzean pentsatu beharko degu zein den helburu ta horren arabera ekintzak planifikatu.

- Plangintza horretan gurasoei harrera egitea dago (ta gainontzeko bilerak). Momentu hori aprobetxatu behar degu zein mezu, zein material... erabil dezakeen irakasleak, gurasoen euskararekiko jarrera hobetzeko. Batez ere haur hezkuntzako bilerak dira garrantzitsu. Iñakik zentzu honetan plangintza zehatzago bat prestatuko du.
- Plangintza honetan ere sartuko genuke matrikulario kanpaina. Folletoren bat prestatu, mezua ondo landua izan, ematen ari geran pausoak ondo erakutsi...
- Eskolako jaialdietan, gurasoen esfortzua eskatu euskararekiko keinu bat egiteko. Adibidez iñauterietan txokolatea euskaraz eskatzea...
- Abenduak 3-an euskararen eguna da, ta egun horretan ere umeentzako zeozer antola genezake.
- Oraingo ideia sorta bat da, baina eskolako zuzendaritzarekin gauzak zehazten joango gera, ta plangintza txukun bat prestatzen.



BURUNZPE

SASOETA-ZUMABURU
GURASO ELKARTEA

AMPA DE
SASOETA-ZUMABURU

3. ERANTSIA. EBETE-REN PLANGINTZA

**SASOETA–ZUMABURU IKASTETXEKO
GURASOEN EUSKARA BATZORDEA**

**2012–2013 IKASTURTEKO
PLANGINTZA**

Lasarte–Orian, 2012ko irailean

AURKIBIDEA

1.- Abiapuntua

2.- 2012-2013 ikasturteko planaren oinarriak: mantentzea, erakartzea eta hobetzea.

3.- Plangintzaren taula eta azalpenak

1.- Abiapuntua

- Seme-alaben hizkuntza-ohiturak axola zaizkigu, horretan eragin nahi dugu.
- Ikastetxeko arduradunekin elkarlanean aritzeko prest gaude: beraiek ere badute interesa eta ahalegin handia egiten ari dira.
- Gurasoen euskara batzordetik hiru norabidetan eragitea bilatuko da:
 - o Etxea: Lehentasunezkoa da, haurren hizkuntzen ezagutza eta ohituretan eragin handia du. Gurasoak euskararekiko aktiboak izatea bilatu da (euskaldunak zein euskara ez dakitenak).
 - o Eskola: Eskolaren norabide berean lan egin nahi da. Eskolako eremuan hutsuneak edo behar jakin batzuk daudela ikusten bada, horietan eragiteko ahalegina egingo da.
 - o Herria: Seme-alaben hizkuntza ohituretan eragitera begira herrian dauden baliabideak modu eraginkorrean erabili behar dira (euskarazko eskola orduz kanpoko jarduerak, euskararen aldeko ekimenak...).

2.- 2012-2013 ikasturteko planaren oinarriak: Mantentzea, erakartzea eta hobetzea.

Proposamena: antolatzen diren ekimen guztietan hiru puntu hauek aztertzea.

a- Mantentzea = fidelizatzea.

Haur Hezkuntzako guraso euskaldunek Lehen Hezkuntzara pausoa ematerakoan seme-alabek eskolan jarraitzea lortu nahi da. Arazo hori ikusten da: eskolak duen irudia eta eskolarekiko aurreiritziek hainbat gurasok seme-alabak beste eskola batera eramatea ekartzen du. Aurreiritzi horiekin hautsi nahi da: zenbat eta guraso euskaldun gehiago, orduan eta euskara maila eta erabilera altuagoak, orduan eta irudi hobea eta orduan eta errazagoa guraso euskaldunak erakartzea eta mantentzea.

b- Erakartzea = eskola hautatzea.

Guraso euskaldunak erakarri nahi dira 2 eta 3 urtekoen matrikulazio kanpainak egiten direnean. Zenbat eta guraso euskaldun gehiago erakarri, orduan eta errazagoa beste bide guztiak garatzea.

c- Hobetzea: gurasoak + eskola

Gurasoen euskararekiko jarrerak lantzea: gurasoak (euskaldunak zein euskara ez dakitenak) euskararekiko aktiboak izatea landu behar da: euskararekiko jarrera egokiak transmititzea, eredu izatea, eskola orduz kanpoko jardueretan euskarazko hautatzea... Beste bideen osagarri garrantzitsua da.

Eskola irakasleen bidez egiten ari den lana ere osatu eta indartu nahi da. Jolasgaraietan euskararen erabilera indartzeko aukerak aztertuko dira.

3.- Plangintza zehatza

	MANTENTZEA	ERAKARTZEA	HOBETZEA
Slogana		X	
Gurasoei harrera		X	X
Gurasoei mezuak	X		X
Maratoia/Korrika		X	
Euskararen eguna /Ihauteriak/ Ekaineko jaialdia			X
Jolasgaraietako begiraleak			X
Eskola orduz kanpoko jardueretarako irizpideak			X

** 2012-2013 ikasturteko jardueren zerrenda osatu ere egin daiteke.*

SLOGANA

Gurasoen Euskara Batzordearen slogan bat landuko da. Irailean bertan egingo da. Ideia nagusia honakoa da:

Herrian zabaldu nahi dugun mezua da Sasoeta-Zumaburu eskola dela herria euskalduntzeko giltza (gu gabe euskarak aurrera egitea zaila da), eta, horretaz gain, lana oso ondo egiten dela eskolan eta aurrerapauso handiak eman direla eta nabarmenak.

Eskolak herrian duen fama, euskaldunen ikuspegitik, eta irudi hori aldatu nahi da. Horregatik, eskola lotu beharko genuke herriko euskaldun eta euskaltzaleentzat prestigioa duen zerbaitekin. Adibidez: euskararen maratoia.

Modu honetako leloak izan daitezke:

Sasoeta-Zumaburu: markak hausten eta euskara indartzen

Euskararen Maratoiak 40 km? Gu gara 41. eta 42. Kilometroak.

Sasoian gaude! Gurekin egiten du aurrera herrian euskarak.

Iñaki Eizmendi arduratuko da gaia landu eta proposamen batzuk Guraso Batzordeari aurkezteaz. Besteak beste Unai Muñoa bertsolariarekin hitz egingo du.

GURASOEI HARRERA

Sasoeta–Zumaburu ikastetxean euskararen erabilerak aurrera egingo badu, benetan garrantzitsua da gero eta guraso euskaldun gehiago izatea. Poliki poliki hori ikusten da, baina oraindik guraso euskaldun gehienek lehenengo aukera ez da eskola hau eta gainera, Haur Hezkuntza amaitutakoan, hainbat gurasok seme-alabak beste ikastetxe batzuetara eramaten dituzte.

2012–2013 ikasturtean, egoera honen aurrean, hiru urrats emango dira:

- Aurre–matrikulazio garaiko kanpaina: aurre–matrikulazio garaian kanpaina polit bat egitea ona litzateke, Gurasoen Euskara Batzordeak eta eskolako Zuzendaritzak batera bideratu dezakete eta prestatu den slogana izan daiteke mezu nagusietako bat.
- Aurre–matrikulazio garaiko harrera: aurre–matrikulazio garaian gurasoentzako harrera prestatu behar da. Gurasoeak ikastetxera joaten direnean informazio eske, prest eduki behar da gurasoentzako mezua: zein diren ikastetxearen helburuak, nola lan egiten den... Bereziki guraso euskaldunentzako harrera prestatu behar da: eskolan guraso euskaldunak ondo zaintzen direla, egiten ari diren apustu berriak... Guraso euskaldunek argi ikusi behar dute, aurreiritziak aurreiritzi, eskolak apustu handia egin duela euskararen erabilera indartzera begira.
- Gurasoen Euskara Batzordearen harrera: lehenengo harreraren ondoren, Gurasoen Euskara Batzordeak egin dezake bigarren harrera bat. Adibidez: Zuzendaritzak informazio eske datozen gurasoei aipatu diezaieke gurasoen euskara batzorde bat dagoela eta interesgarria izan daitekeela beraiekin ere hitz egitea (asmoak ezagutzeko, harremanak egiteko, kezak ikusteko...). Gurasoen euskara batzordeko norbait (ahal bada beste guraso horren ezaguna), harremanetan jarriko litzateke eta eskolan parte hartzera gonbitea egin. Noski, landu egin behar da zein mezu eman, nola eman eta abar.

GURASOEI MEZUAK

Gurasoek, euskaldunek zein euskara ez dakitenek, eragin handia dute seme-alaben hizkuntza-ohituretan eta euskararekiko jarreretan. Hori dela eta, garrantzitsua da gurasoek ikastetxearen norabidea ezagutzea, beraiek zer eta nola zaindu dezaketen jakitea, eta abar.

Horri begira, hiru pauso emango dira 2012-2013 ikasturtean:

1.- Irakasleekin plangintza bat lantzea: Haur Hezkuntzako irakasleak gurasoei mezuak ematen hasiko dira (euskarekiko aktiboak izatea proposatu zaie). Hori landu egingo da irakasleekin eta plangintza batean jasoko da: zein mezu eta noiz emango diren, zein kezka argituko diren, zein tresna eskaini eta noiz... Iraileko lehenengo guraso bileretatik jarriko da abian plan hau.

2.- Gurasoei plangintzaren berri ematea: Irakasleekin landutako plangintza aurkeztuko zaie Gurasoen Euskara Batzordekoiei. Iñaki Eizmendik egingo du urriaren amaiera aldera.

3.- Guraso elkartearen jardunarekin lotzea: Plangintza ezagututa, gurasoek beraien jardunarekin nola lotu aztertuko dute. Adibidez: guraso elkarteak antolatzen dituen jaialdietan antzeko mezuak txertatu daitezke. Hiru une behintzat erabili nahi dira horretarako: euskararen eguna, inauteriak eta ekaineko jaialdia.

MARATOIA / KORRIKA

Euskararen Maratoian eta Korrikan eskolaren irudia indartzeko jarduerak antolatuko dira. Ahalegina egingo da Sasoeta–Zumaburuk protagonismo berezia izan dezan herri mailako bi jarduera horietan eta hori erabili nahi da mezu bat transmititu eta irudi erakargarriagoa eskaintzeko. Irailean landuko den slogana izan daiteke horretarako tresna egokia.

EUSKARAREN EGUNA / INAUTERIAK / EKAINeko JAIALDIA

Hiru jarduera horiek eskola mailakoak dira, eta erabili nahi dira gurasoei mezu batzuk helarazteko eta euskararekiko aktiboak izan daitezen proposatzeko.

Jarduera bakoitzean zer eta nola egin daitekeen aztertu beharko da, baina, adibide bat haxe izan daiteke:

- Euskararekiko aktiboak izateko modu bat gure eguneroko jardunean, euskara jakin edo ez, euskara gehiago txertatzea da. Adibidez: gurasoen arteko harremanetan euskara pixka bat behintzat sartzea.
- Ikastetxeko jaialdietako batean honakoa proposatuko zaie gurasoei: gurasoen arteko lehenengo harremanak (gutxienez agurrak), euskara izatea: Kaixo, Zer moduz zaude?, Oso ondo, zu ere bai?, bai ni ere bai.
- Jolas edo erronka moduan proposatuko zaie: lortuko al dugu hasierako esaldiak euskaraz izatea gurasoen artean? (euskaldunak eta euskara ez dakitenak).
- Kanpaina bat egin daiteke horri begira.
- Irakasleek gurasoak animatzeko ahalegina egin dezakete Haur Hezkuntzan.
- Lehen Hezkuntzako ikasleek beraiek proposatuko dute erronkak etxean
- ...

Modu honetako jarduerak irakasleek gurasoei mezuak emateko eta aktiboak izateko eskatzeko landu den plangintzarekin lotura zuzena dute.

JOLASGARAIETAKO BEGIRALEAK

Ikastetxean irakasleen bidez euskararen erabileran eragiteko egiten ari diren lanaren osagarri, jolasgaraietako begiraleen aukera aztertuko da.

Irakasleek, euskararen erabilerari dagokionez, eragin gehien gela barruan dute eta eragin hori jaitsi egiten da patioan. Aukera bat izan daiteke atsedean tarte horietan begiraleak jartzea, jolasak dinamizatu eta euskararen erabileran egingo duten begiraleak.

ESKOLA ORDUZ KANPOKO JARDUERETAKO IRIZPIDEAK

Eskola orduz kanpoko jarduerak garrantzia berezia dute euskararen erabilerari dagokionez:

- Jarduera pertsona batek dinamizatzen du (hezitzailea, entrenatzailea...) eta euskararen erabilera ere dinamizatu dezake.
- Egoera informalagoak dira, eta egoera informaletarako hiztegia garatzeko oso garrantzitsua.
- Erreferenteak daude: haurrentzat hezitzaile/entrenatzaileak erreferenteak izaten dira eta garrantzitsua da hauek euskararekin lotzea.

Herrian Ttakun Kultur Elkartearen bidez urteetan lan egin da norabide honetan eta asko aurreratu da.

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Gurasoen Elkartek oso argi izan behar du benetan garrantzitsua dela jarduerak euskaraz eskaintzea, eta, are gehiago, jarduera horietan euskararen erabilera lantzea.

Horri begira, hizkuntza-irizpide batzuk landuko dira Gurasoen Euskara Batzordetik (hezitzaileak nola hautatu, hezitzaileei zein irizpide eman...) eta Guraso Elkarteari aurkeztuko zaizkio irizpide horiek elkartearen jardunean txertatzera begira.



BURUNZPE

SASOETA-ZUMABURU
GURASO ELKARTEA

AMPA DE
SASOETA-ZUMABURU

4. ERANTSIA. MARATOIA

euskararen maratoia

Kaixo lagunok:

Gezurra dirudien arren lau urte pasa dira eta berriro hemen dugu Euskararen Maratoia ate joka, Sasoeta-Zumaburuko Guraso Elkarteko kideok bertan parte hartetzeko asmoa dugu haurrentzat tailerrak prestatuz, horregatik zuen laguntza behar dugu, eskatu nahi genizueke erabiltzen ez dituzuen euskaraz irakurtzeko libirurik baldin badituzue ikastolara ekartzeko eta komuneko paperaren barruan dagoen tutuak ere bai, zuen laguntza eskertzen dizuegu.

Bestalde, jakinarazi nahi dizuegu Guraso Elkartek **IGANDEA 21**.ean arratsaldeko **17:30 Benedika mendira** egingo den igoeran parte hartuko duela, animatu eta Okendo plazan ikusiko gara.

El fin de semana del 20 y 21 de Octubre tendrá lugar en Lasarte- Oria el “Maratón del euskera”. La Asociación de Padres tomará parte en dicha fiesta organizando talleres para niños, por ello os queremos pedir que si tenéis libros de lectura en euskera que no utilizéis los traigáis al cole y también nos mandéis los tubos que vienen dentro del papel higiénico para poder utilizarlos en los talleres.

*La Asociación de Padres tomará parte en la subida que se realizará el **DOMINGO 21** a las **17:30 al monte Benedica**, animaros, nos veremos a esa hora en la plaza Okendo.*

euskararen maratoia

Kaixo lagunok:

Gezurra dirudien arren lau urte pasa dira eta berriro hemen dugu Euskararen Maratoia ate joka, Sasoeta-Zumaburuko Guraso Elkarteko kideok bertan parte hartetzeko asmoa dugu haurrentzat tailerrak prestatuz, horregatik zuen laguntza behar dugu, eskatu nahi genizueke erabiltzen ez dituzuen euskaraz irakurtzeko libirurik baldin badituzue ikastolara ekartzeko eta komuneko paperaren barruan dagoen tutuak ere bai, zuen laguntza eskertzen dizuegu.

Bestalde, jakinarazi nahi dizuegu Guraso Elkartek **IGANDEA 21**.ean arratsaldeko **17:30 Benedika mendira** egingo den igoeran parte hartuko duela, animatu eta Okendo plazan ikusiko gara.

El fin de semana del 20 y 21 de Octubre tendrá lugar en Lasarte- Oria el “Maratón del euskera”. La Asociación de Padres tomará parte en dicha fiesta organizando talleres para niños, por ello os queremos pedir que si tenéis libros de lectura en euskera que no utilizéis los traigáis al cole y también nos mandéis los tubos que vienen dentro del papel higiénico para poder utilizarlos en los talleres.

*La Asociación de Padres tomará parte en la subida que se realizará el **DOMINGO 21** a las **17:30 al monte Benedica**, animaros, nos veremos a esa hora en la plaza Okendo.*



Lasarte-Oria

Euskararen 8.maratoia

Urriaren 20-21

Sasoeta –Zumaburu ikastetxea

Urriak 20, larunbata

Ikasleen Saioa: “Guk nahi degu rock and roll” 10etatik

12etara

Gurasoen eskutik, “Bazkal osteko txokoak”: 14:30-16:00

Urriak 21, igandea:

Mendi igoera: Benedika mendia, 17:30etatik 19:00etara



IKASLEEN SAIOA:

Larunbatean

Guk nahi degu ROCK AND ROLL

Sarrera: "Guk nahi degu rock and roll"

"Hi haiz txapeldun"

HH5, LH1-2: Euskal Rock and Roll

LHL3-4 "Saturnino"

LH5 "Euskal Rap"

LH6 "Kaixo"

Bukaera: "Guk nahi degu rock and roll"

"Hi haiz txapeldun"

GURASOEN ESKUTIK:

Larunbatean

ESAZU IRRATIA: Saio berezia Okendo plazatik

TALLERRAK: Globoflexia, maquillaje, maskarak, bihotzak, liburuak...

Igandean

MENDI IGOERA: BENEDIKA mendira 17:30etatik 19:00etara

**“GUK NAHI DEGU ROCK
AND ROLL”**

(WE WILL ROCK YOU)
(MERCURY)

Hasi bai dantzan
Denok , gaur mugituz
Gerri ipurdi ta hankak batera
Neri inportik batez
Lotsik ez
Gorputzari utzi bakarrik joaten
Guk nahi dugu rock and roll
(3)
Puru bat erre ta
Gero priba mordo bat
Enroilatuaz bidaian
Neri inportik batez
Lotsik ez
Gorputzari utzi bakarrik joaten
Guk nahi dugu rock and roll (3)

**“EUSKAL ROCK AND
ROLL”**

(NIKO ETXART)

Izan gira Euskal Herrin
rock&rolling

Gaüa heldü denin
adiskidiekin
juiten g(ar)ela bestaka...

Bal-en urhentzin
ene maitea
eneki jin zite "au cou-cou des
bois"

Zü eta ni
biak goxoki.
dantzan dantzan rock&rolling

KAIXO!

(URTZ)

Trikitixa dantzatu nahiko nuke
Edozein herritako jaietan
Trikitixa dantzatu nahiko nuke
Gure begiak topatuz plazan
Maitemindurik nago eta
Zu oraindik ez zara konturatu,
Egunez mozkorturik nauzu
Eta gau aldean ezin loak
hartu
Zu hor zabiltza dantzan eta
Ni hemen urrun ez
dakidalako...
Norbaitek erakutsiko balit!

**“HI HAIZ
TXAPELDUN”**

(WE ARE THE
CHAMPIONS)(MERCURY)

Jakintsua
Ta zorrotza
Ospetsua
Ez daki zer den lotsa
Haiz azkarrena
Ederrena
Berdin baitzaik
Aldapan gora nahiz behera
Hi haiz txapeldun ona
Hi denetatik onena
Hi azkarrena ta ederrena
Bainan besteak zapaltzen ere
Hi haiz lehena

“SATURNINO”

(PIRRITX-PORROTX)

laz egin nuen lagun berria
Saturno planetatik etorria
Bere plater txiki hegalaria
Nire teilatuan zen eroria
Trikitixa jotzen du esku batez
Txapela jazten du kolore
berdez
Piperrak irensten du egun eta
gauetz
Zenbatzen du aldrebez

SATURNINO! SATURNINO!
NIREKIN BIZITZEN
GELDITU ZAITEZ
BESTE EGUN BAT
GE HIAGO MESEDEZ.

-KAIXO!
-KAIXO!
-ZELAN?
-ONDO, ETA ZU?
-BENO
-ZER BA?
-BEGIRA
-ESAN
-ENTZUN
-NOLA?
-HELDU!
BIHOTZA DA!!
BIHOTZA DA BAI!!

BERO-BERO

Ordu bat hogeitau ordu
bizitza osoa
norbere izatea
hizkuntzan jasoa
mugitzea da hemen bizitza
eta hitza da pausoa.

*Bero bero euskeraz orain ta
gero,
bero bero maratokia
egunero.*

Txiki al gera horren
mundu zabalean
handi egiten gera
mundu apalean
eguneroko maratokiean
gure herriko kalean.
..Hain herri gaztea ta
hain hizkuntza zaharra
bietarako degu
Lasarten indarra
zu ere festa hontan sartzea
da falta zaigun bakarra.

Bero bero...

Haur baten ilusioa
helduaren nahia
eskuz esku hartzeko
badegu garaia
adin guztien jaia delako
Euskerak dakarren jaia.

Bero, bero...

TXUPI GUAI !

Nire auzoan ez dago ezer,
bost katu ta bi kotxe berde,
sugandilak harri-paretan,
idatzi du hainbat akorde.
Gure herrian Maratokia,
euskararen festa handia,
jo txindata ta saxofoia,
jarri dantzan Lasarte-Oria,
maratokia

TXUPI TXUPI GUAI !!

RA RA RA RA RA Gora
euskara

Goazen ireki ditzagun ba,
kutxa zaharrak ganbaran,
hartuko dugu altaboza,
hauze da gure ohiua:

MARATOKIA, TXUPI-TXUPI

GUAY!

RA, RA, RA, RA, RA

GORA EUSKARA!!!

EUSKAL RAP

**BERTSOAK HIP -
HOP
ERRITMOAREKIN**

¿??????????????



SASOETA
Kalbario bidea 4
Tfno-a: 943 361226
Fax-a: 943 371308

ZUMABURU
Zumaburu 13
Tfno- Fax-a: 943 362274



Emaila: sazu.zuzendaritza@gmail.com

SASOETA-ZUMABURU/ ESAZU IRRATIA FM105.5: OSTIRALETAN 9:9:45etatik

EUSKARAREN 8.MARATOIA LASARTE-ORIAN URRIAK 20/20

Irratsaiorako gidoia

ARDURADUNAK	ZER								
GURUTZE ETA JOSU	ESAZU SINTONIA	GUK NAHI DUGU ROCK AND ROLI	SAIO BEREZI HONEN AURKEZPENA Gidoia prestatu	MUSIKA ROCK	BERTSOLARIAK		MUSIKA	MAINGURUA .- Ttakuneko .- Pablo, alkatea .- Zortzikoteko bat .- Gobidapen irekia Eguraldia/Medietxangoa	AGURRA ETA SINTONIA
					Aurkezpena GIDOIA	EMANALDIA			
DENBORA	1'30''	1'	3'	1'	30''	5'-6'	2'	12-15'	1'
ARDURADUNAK	1.ARDURADUNA		2.ARDURADUNA	1.ARDURADUNA	2.ARDURADUNA	Andoni eta Zigor (Nora 5.maila)	1.ARDURADUNA	2.ARDURADUNA + 5. mailako ikasleak	1.ARDURADUNA

GIDOIA

14:30 ESAZU SINTONIA

14:31 GUK NAHI DUGU ROCK AND ROLL

14:32 SAIOAREN AURKEZPENA

GURUTZE:

Arratsaldeon guztioi eta ongi etorriak ESAZU irratsaiora.

JOSU

Maratoiak ordu gutxi batzu daramatza martxan eta jadanik gure txanda heldu da. Eta zuen buruari galdetuko diozute, nor geran gu, eta zer egin behar ote degun hemen.

GURUTZE

Ba gu, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Guraso Elkarteko kideak gara. Maratoi honetarako ekitaldi berezi bat prestatu nahi izan degu eta hementxe fruitua.

JOSU

Ta zer antolatu degun? Ba lehenik eta behin umeentzako tailer batzu. Hor dauzkagu Guraso Elkarteko gainontzeko kideak umeei laguntzen, bai globoflexia egiten, bihotz formadun eskulana egiten, pultserak egiten ere.

GURUTZE

Baita arkatzak gordetzeko eskulana, karetak, aurpegia margotzeko tailerra eta baita liburuen txoko bat ere.

JOSU

Eta tailer hauetaz gain, irratsaio berezi hau ere antolatu degu. Eta zergatik? Ba Lasarte-Orian badagoelako euskeraz egiten den irratsaio bat, ESAZU IRRATIA.

GURUTZE

Irratsaio hau Sasoeta Ikastetxean egiten da, eta umeek egiten dute. Ostiral goizetan egoten da aukera 105.5 sintonian entzuteko. Dena euskeraz eta gure umeak ederki moldatzen dira eta ederki pasatzen dute, noski.

JOSU

Seguru gu baino hobeto moldatuko direla. Gaurkoan ere saiatuko gera umeen parte hartzea izaten, beraiek bait dira ESAZU irratiaren protagonista. Hau ez da erreza, azken finean ezberdina da gela baten egotea, edo plaza handi baten hainbeste jenderen aurrean egoten. Baina guk parte hartzen dutenentzako sari txiki batzu dauzkagu. Beraz, aukera dagoenean animatu zaitezte.

GURUTZE

Orain, ondo hasteko musika pixka bat jarriko degu, eta ondoren bertsolarien txanda etorriko da. Gaurkoan ANDONI OTAMENDI eta ZIGOR IRIONDO izango ditugu gure artean. Eta ondoren gauza gehio ere noski.

14:35 ROCK AND ROLLING

14:37 BERTSOLARIAK

JOSU

Lehen esan bezela, irratsaioko lehen tarte honetarako zer hobeto bertso batzuk izatea baino. Gurutze ta ni ez gera batere ondo moldatzen bertsotan. Beraz zer hobeto bi bertsolari on eta ezagun hemen izatea baino.

GURUTZE

Eskertzekoa da bai Andoni eta baita Zigor-ek ere gure gonbitea onartu izana. Ziur aski denok ezagutzen dituzue baina badaezpada ere, esan biak Lasartearrak direla, ta biak adin berekoak. Esan dezagun biak gazteak direla...

JOSU

Biek dute erlazio dexente hezkuntzarekin, batek zuzenean eta besteak zeharka. Zigor, Zipri bezela ere ezaguna, kirolarekin harreman estua izan du. Gaztetan txirrindulari izana, ondoren soinketako irakasle.

GURUTZE

Andonik berriz emaztea du Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko irakasle. Horrela nola esango zion ezetz gure gonbiteari. Goazen orain beraien bertsoak entzutera:

14:38 BERTSOLARIEN EMANALDIA – ZIGOR ETA ANDONI

14:43 BERTSOLARIEI ESKERTU ETA AGURTU

GURUTZE

Eskerrik asko Zigor eta Andoni zuen bertsoengatik. Azken aldian Lasarten bertsolaritza indartsu degu, eta seguru gaude hemen ditugun gazteentzat eredu zerratela. Ea 4 urte barru beraiek ere animatzen diren zuen testigua hartzera.

JOSU

Orain irratsaioaren hurrengo atalera pasako gera. Atal hau piskat irekiagoa izango da. Mahai inguru bat izango degu zenbait lagun ezagunekin. Baina protagonismoa ez diegu beraiei eman nahi bakarrik, baita plazan zaudeten guztioi ere, bereziki umeoi. Beraz baten batek galderaren bat egin nahi badie edo abestiren bat abestu nahi badu, esan diezagula eta zuzenean berari emango diogu paso. Bi aukera daukazue, oholtza gainera igota, edo bestela gu mugituko ginateke zuek zaudeten lekura. Animatu zaitezte, ze parte hartzeak oparia dauka.

14:45 EUSKAL ROCK NIKO

14:47 MAHAI INGURUA

GURUTZE

Hementxe ditugu gure artean 5 pertsona. Baina aurkezpena guk egin beharrean, izotza hausteko, agian egokiena zeuok zuen buruaren aurkezpena egitea. Aurkezpena egin ondoren, guk zenbait gai jarriko ditugu mahai gainean zuen artean komentatu ahal izateko. Baina plazako edonork galderaren bat egin nahi badio norbaiti, edo besterik gabe abestu egin nahi badigu abestiren bat, mesedez esan diezagula. Ados?

JOSU

Horrela ba, hasi mesedez nor zeratzen guri kontatzen.

GAI POSIBLEAK:

- Zer da maratonia zuentzat? Zenbat maratointan parte hartu dezute eta esperientzia kuriosorik edo gogoratzeko pena merezi duenik izan al dezute?
- Sasoeta-Zumaburu ikastetxea. Askok aldatu al da? Estereotipo dextente daude bere inguruan iragana dela eta, baina orain nola ikusten dezute gure ikastetxea?
- Euskeraren erabilera Lasarten. Nola ikusten dezute. Aldatu al da. Hoberuntz al goaz? Anegdotarik honen inguruan?

UMEEN GALDERAK ADIBIDEZ:

- Zein da zure futbol taldea?
- Non bizi zera?
- Kirolak egiten al dezu?
- Zein da zure janari faborittoa?
- Zenbat urte daukazu?
- Oporretan ibili zeran lekuetatik, zein da gehien gustatu zaizuna?
- Zer duzu gustokoen, hondartza edo mendia?
- Benedika mendira igoko al zera Maratoi honetan?

14:57 MAHAI INGURU AMAIERA

GURUTZE

Eskerrik asko, Pablo, Iñaki..... gurekin egoteagatik, baina bukatzen hasi behar degu, hurrengo txanda bait dator. Lasai, lau urte barru izango bait degu zuekin berriro hitzegiteko aukera.

JOSU

Baina bukatu aurretik, irratsaio gehienetan bezela, eguraldiaren berri izan behar degu. Ta gainera interes berezia degu bihar arratsaldean zein eguraldi egingo duen jakiteko. Ta zergatik? Ba bihar Benedika mendira egingo den 17:30-tako txanda guk egingo bait degu, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Guraso, ikasle, irakasle eta gurekin etorri nahi duen edozein lagunek.

Beraz denok zaudete gonbidatuta. Mesedez, IKASLEAREN IZENA, esaiguzu bihar zein eguraldi izango degun.

14:58 IKASLEA

Ba bihar, gaurko eguraldiaren antzekoa dago aurreikusia. Hau da, mendi irteerarako, hartu aterki, txubaskero eta bota on batzu, lokatza ta euria izango bait ditugu. 15 graduren bueltan ibiliko gera, ipar haize piskatekin.

14:59 AGURRA

GURUTZE

Eskerrik asko IZENA eguraldiaren berri emateagatik. Baserritarrentzako berri onak izango dira, baina guretzat ez gehiegi. Beno, eguraldi txarrari aurpegi ona jarri beharko diogu. Eta euriakin edo eguzkiarekin, bihar 17:30-tan hementxe ikusiko gera, Benedika mendira igotzeko prest.

JOSU

Ta amaitzeko, eskerrak eman saio honetan gurekin izan zeraten guztioi. Eskerrak ere Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko gainerako gurasoei, hemen batzuk ikusi gaituzue, baina gehiago ere ibili gera guzti hau prestatzen, baita eskolako zuzendaritza ere, eta Ttakuneko zenbait kide ere. Eta nola ez, gure gonbitea onartu dezuten guztioi, bertsolari, alkate, zortzikote kide etab.

Eskerrik asko ta laister arte.

15:00 ESAZU IRRATIKO SINTONIA





BURUNZPE

SASOETA-ZUMABURU
GURASO ELKARTEA

AMPA DE
SASOETA-ZUMABURU

5. ERANTSIA. EUSKARAREN EGUNA

SASOETA-ZUMABURU IKASTETXEKO GURASOEN EUSKARA BATZORDEA

FAMILIENTZAT ERRONKA EUSKARAREN EGUNEAN

ebete hizkuntza-zerbitzuak
2012ko azaroan

Prozedura

Helburua:

- Ikastetxearen eta Gurasoen Euskara Batzordearen helburuetako bat ikastetxeko gurasoak euskararekiko aktiboak izatea da: seme-alabei ahalik eta euskara gehien eskaintzea eta euskararekiko jarrera egokiak transmititzea.
- Euskararekiko aktiboa izatea erraza eta atsegina izan daiteke.
- Hori ikus dezaten, euskararen egunera begira erronka bat proposatu nahi zaie familiei: ikastetxeko familiek inoiz baino euskara gehiago erabiltzea nahi da (kasu batzuetan oso gutxi bada ere). Lortuko dugu?

Irakasleei aurkeztea:

- Lehen Hezkuntzako irakasleei proposamena aurkeztuko zaie eta ekarpenak egiteko aukera emango zaie.
- Ezinbestekoa da beraiek parte-hartzea: ikasleekin landu behar baita euskararen egunaren aurretik eta ondoren.
- Ikastetxeko zuzendaritzak aurkeztuko die proposamena irakasleei.

Irakasleek ikasleekin lantzea (LH):

- Euskararen egunaren aurreko astean, urriaren 26ko astean, tutoreak (edo erabakitzen den irakasleak), gaia landuko du ikasleekin. Saio bat hartuko du horretarako.
- Euskararen erabilerari buruz hitz egingo dugu ikasleekin:
 - o Herriko plano bat emango diegu (marrazki bat: kiroldegia, etxea, kultur etxea...)
 - o Ikastetxeko plano bat emango diegu (gela, patioa...)
 - o Gune bakoitza kolore batekin margotu behar dute: laranja = euskara nagusi, gorria = euskara eta gaztelania berdintsu, berdea = gaztelania gehiago, eta urdina = gaztelania soilik.
 - o Mezu bat eman nahi diegu (errefortzu positibo bat): seguruenik euskararen erabilera handiagoa izango da eskolan, baina euskara asko erabiltzen dute, gutxienez eskolan. Eta hori guretzat pozgarria da.
 - o Baina, eskolan gehiago erabiltzen dute kalean baino. Gustatuko al litzaieke eskolatik kanpo, pixka bat bada ere, gehiago erabiltzea?
- Erronka aurkeztuko diegu:
 - o Abenduaren 3a euskararen eguna izango da.
 - o Erronka izango da lortzea gurasoek euskara gehiago erabiltzea.
 - o Baina jolas bat da eta ondo pasa behar dugu: guk eta gurasoek.
 - o Horregatik erronka oso sinplea da: euskara ez dakitenek bi edo hiru esaldi ikasi eta erabiltzea, euskara pixka bat dakitenek gehiago erabiltzea eta euskara dakitenek ez dakitenekin zerbait erabiltzea.

- o Etxera eramango duten esku-orria aurkeztuko diegu eta ostiralean emango diegula esan.
- o Asteburuan gurasoei aurkeztu behar diete, nahi badute erakutsi eta ensaiatu ere bai, eta astelehenean (euskararen egunean) gurasoek ahal duten guztietan erabili behar dituzte esaldi horiek.
- o Asteartean ekarri behar duzue zein esaldi ikasi eta erabili dituzten gurasoek.
- o Noski, borondatezkoa da eta gurasoen batek ez badu parte hartu nahi ez da ezer gertatzen.
- o Zenbat euskara gehiago erabiliko dugu astelehenean?

Euskararen eguneko erronka:

- Azaroaren 30ean haurrei esku-orriak banatuko dizkiegu etxera eramateko eta animatuko ditugu erronka lortzera.
- Abenduaren 3an, goizean zehar, behin baino gehiago gogoratuko diegu erronka.
- Gainera, bi jarduera osagarri ere egingo dira:
 - o Girotze lana: Gurasoen Euskara Batzordekoek ikastetxean hainbat kartel itsatsiko dituzte, adibidez, euskarazko esamoldeekin eta erronka gogoratuz.
 - o Gurasoen parte hartze zuzena: panel batean gurasoei ikasi dituzten eta erabiltzen ari diren esaldiak idazteko eskatuko zaie. Gurasoak gonbidatuko ditugu idaztera.

Irakasleek ikasleekin ondorioak lantzea:

- Abenduaren 4an edo 5ean, ikasleekin ondorioak aterako ditugu.
- Zeintzuk dira gurasoek ikasi eta erabili dituzten esaldiak? Erraza egin al zaie? Zenbat ahalegindu dira eta zenbat ez? Ondo pasa al dute? Zer iruditu zaie gure ikasleei irakasle rola hartzea? Ondo pasa dute?
- Horretan jarraitzera gonbidatuko ditugu: gurasoei eskatze ikasitakoak erabiltzen jarraitzeko, gauza berriak erakustea...
- Lehenengo saioan hitz egindakoa borobilduko dugu: euskara asko erabiltzen dute, batez ere eskolan. Baina eskolatik kanpo ere gero eta gehiago erabil dezakete nahi badute: adibidez, etxean. Ez da zaila eta dibertigarria ere izan daiteke. Horretan jarraitzeko prest?

Ondorioak gurasoei helaraztea:

- Erronkaren ondorioka positiboak badira, oso ondo legoke gurasoei mezu hori helaraztea: Zenbat euskara gehiago erabili dugu? Eta hori egunero egingo bagenu?
- Etxera bidali daiteke ohar bat, web gunean jarri, eskolako aldizkarian argitaratu, Txintxarrin...

Euskararen eguna

**Gurasoei erronka bat proposatzen
dizuegu!**

Día del euskera

**¡Os proponemos un reto a padres
y madres!**

**SASOETA-ZUMABURU IKASTETXEA
IKASLEEN GURASOENTZAT ESKUORRIA**

Euskararen egunerako erronka

- Sasoeta-Zumaburu ikastetxean argi daukagu gure ikasleek hizkuntza bat baino gehiago ondo ikastea nahi dugula: erraztasuna izatea euskaraz eta gaztelaniaz eta ingelesean ere maila on bat lortzea.
- Hizkuntzak ondo ikasteko asko erabili behar dira.
- Gaztelania nagusi den ingurune batean bizi gara eta eskolan guraso gehienek gaztelaniaz egiten dute seme-alabekin.
- Euskararen egunean euskararen erabileran aurrera pauso bat eman nahi genuke: gurasoek, hainbat kasutan pixka bat soilik bada ere, euskara ere eskaintzea seme-alabei.
- Erronka bat prestatu dugu euskararen egunerako (abenduaren 3a)
- Seme-alaben laguntza ere izango duzue. Lortuko al duzue?

Reto para el día del euskera

- En Sasoeta-Zumaburu queremos que nuestros alumnos aprendan bien tanto el euskera como el castellano y que tengan una buena base de inglés.
- Para aprender bien una lengua es muy importante utilizarlo mucho.
- Vivimos en un entorno donde el castellano es mayoritario y en nuestra escuela la mayoría de padres y madres os comunicáis en castellano con vuestros hijos/as.
- Queremos aprovechar el día del euskera para animaros a que les ofrezcáis también un poco de euskera.
- Os proponemos un reto para el día del euskera (3 de diciembre) que nos parece muy simple e incluso puede ser divertido.
- Tenéis la ayuda de vuestro hijo/a. ¿Seréis capaces de conseguirlo?

Esamoldeak erabiltzen

Zenbait esamolde aukeratzea eta euskararen egunean erabiltzea proposatzen dizuegu: ez dakizkizuen esamoldeak izan daitezke edo jakin bai baina erabiltzen ez dituzuenak.

Etxean euskaraz egiten baduzue, euskaraz ez dakiten gurasoekin erabiltzera gonbidatzen zaituztegu. Hau da: egun horretan beste gurasoekin hitz egiten duzuenean, hauek euskara ez badakite ere esamolde horiek euskaraz erabiltzea.

Seme-alabei begira jarrera oso egokia dela uste dugu: edozein harremanetan euskarari lekua egiteko ahalegina egiten dugula ikusiko dute.

Egun on!	Buenos días		
Zer moduz zaude?	¿Qué tal estás?		
Ondo ibili	Que te vaya bien		
Laster arte	Hasta pronto		

Idatzi zure esamoldeak panelean

Abenduaren 3an ikastetxean panel bat jarriko dugu gurasook aukeratu dituzuen esamoldeak idatzi ditzazuen. Hurbildu eta idatzi zuenak!

Frases en euskera

Os proponemos que elijáis 3 o 4 frases que no sabéis o no utilizáis, y que por lo menos el día del euskera intentéis utilizarlos varias veces.

Es un reto sencillo, puede resultar divertido y es un modo fácil y efectivo de transmitir a nuestros hijos e hijas que queremos que también aprendan bien el euskera y que nos interesa esa lengua.

Os proponemos algunas frases para que podáis elegir pero podéis optar por otras diferentes.

Egun on!	Buenos días		
Zer moduz zaude?	¿Qué tal estás?		
Eman muxu bat	Dame un beso		
Jantzi berokia	Ponte el abrigo		

¡Escribe tus frases en el panel!

El 3 de diciembre colocaremos un panel en la escuela para que escribáis las frases que habéis aprendido y vais a utilizar. ¡Acercaros y animaros a escribirlos!



IDATZI ZURE ESALDIA!!!

IIIESCRIBE TU FRASE!!!

A large, empty, light green rectangular area with rounded corners and a red border, intended for writing the response.





BURUNZPE

SASOETA-ZUMABURU
GURASO ELKARTEA

AMPA DE
SASOETA-ZUMABURU

6. ERANTSIA. KORRIKA

SASOETA-ZUMABURU IKASTETXEKO GURASOEN EUSKARA BATZORDEA

Korrika 2013: Eman euskara elkarri

IKASLE ETA FAMILIENTZAT ERRONKA

*ebete hizkuntza-zerbitzuak
2013ko otsailean*

Prozedura

Helburua:

- Ikastetxearen eta Gurasoen Euskara Batzordearen helburuetako bat ikastetxeko **gurasoak euskararekiko aktiboak izatea da**: seme-alabei ahalik eta euskara gehien eskaintzea eta euskararekiko jarrera egokiak transmititzea.
- **Euskararekiko aktiboa izatea erraza eta atsegina izan daiteke.**
- **Korrika aukera polita da hori lantzeko: ahalik eta familia gehienek Korrikan parte hartzea nahi da.**

Irakasleei aurkeztea:

- Lehen Hezkuntzako irakasleei proposamena aurkeztuko zaie eta ekarpenak egiteko aukera emango zaie.
- **Ezinbestekoa da beraiek parte-hartzea: ikasleekin landu behar baita.**
- **Ikastetxeko zuzendaritzak aurkeztuko die proposamena irakasleei.**

Irakasleek ikasleekin lantzea (LH):

- **Ikasleei Korrika laster hasiko dela** esango diegu. Korrika **zer den** ere azalduko diegu. **Aurtengo Korrikaren** berri emango diegu: **omendu nahi dituzte euskara ikasi duen jendea.** Jende askok egin du ahalegina, haurrak zirenean ikasteko aukerarik izan ez zutenez, euskaltegira joan eta euskara ikasteko. Ahalegin handia egin behar izan dute. Batzuei asko kosta zaie.
- **Mezu bat emango diegu:**
 - o **Zuek ere euskara ikasten ari zarete (baita gaztelania eta ingelesa ere)**
 - o **Guk nahi dugu zuek euskara ondo ikastea eta horretan ahalegintzen gara.** Horregatik **eskatzen dizuegu euskara asko erabiltzeko, ondo ikasteko asko erabili behar baita.**
 - o **Baina euskara ez da eskolan ikasi beharreko gauza bat soilik.** Askoz gehiago da. Eta ziur zuek ere **gustuko gauza asko egiten dituzuela edo egin ditzakezuela euskaraz.**
 - o **Horretaz konturatzea nahi genuke.** Horrekin jolastu nahi dugu.

URRATSAK

1.– Proposamena egingo diegu:

- o Korrika Euskal Herrian zehar dabilen bitartean gustuko ditugun gauzak egingo ditugu euskaraz. (LASARTE–ORIARA IRITSI BAINO ASTE BETE BAT LEHENAGO)
- o Lehenengo egunetan eskolan bertan egitekoak izango dira, baina ondoren eskolatik kanpo egitekoak ere bai.
- o Amaituko dugu Korrika Lasarte–Oriatik pasatzen denean.(MARTXOAK 23 ARRATSALDEKO 5:00 ETAN edo pixka bat lehenago)
- o Bi erronka lortu nahi ditugu:
 - Egunero euskaraz gustuko zerbait egitea (Zehatu eta planifikatu zer)
 - *Korrikan parte hartzea eta gurasoak ere parte hartzea. Hau da: Sasoeta–Zumaburutik inoiz baino jende gehiagok parte hartzea Korrikan.*

Lortuko ditugu bi helburuak?

2.– Ondoren ideien ekaitza egingo dugu:

- o Beraiek ideiak eman behar dituzte, eta ondoren, irakaslearen laguntzaz **zer eta noiz** egin adostuko dugu.
- o Zer gauza **BEREZIAK** egin ditzakegu datozen egunetan ikastetxean eta gustukoak? Jolas bat, pelikula bat, ekintza berezi bat, eskulan bat...
- o Zer gauza egin ditzakegu datozen egunetan eta ikastetxetik kanpo gustukoak? Telebista, musika, liburuak, ekintzaren bat...

3.– Egun bakoitzerako erronka adostuko dugu:

- o Astelehenean... Asteartean...
- o Lehenengoak eskola barrukoak izango dira
- o Ondorengoak eskolatik kanpokoak (Korrika Txikia ere hemen sartu daiteke).
- o Azkenekoa **HERRIKO Korrika** izango da. **Korrika nagusia.**
(MARTXOAK 23 ARRATSALDEKO 5:00 ETAN edo pixka bat lehenago)

4.– Egunez eguneko erronkak:

- Egunero gogoraraziko diegu erronka.
- Nagusien Korrika baino egun batzuk lehenago ikasleei etxera eramateko ohar bat emango diegu: gurasoei Korrikaren berri emango diegu, euskararekiko aktiboak izateko proposatuko diegu eta Korrikan parte hartzera gonbidatuko ditugu.
- Oharra ematen diegunean etxean ondo azaltzeko eskatuko diegu eta ahalegina egiteko Korrikan parte hartzean eta gurasoen parte hartzea ere lortzen: kontatzeko zertan ibili diren, eskolako askok parte hartuko dutela, beraiek ere nahi dutela, baina gurasoek ere parte hartu behar luketela ...

Argazkiak atera ditzakete gero eskolara ekartzeko

5.– Korrikaren ondoren:

- Korrika amaten denean, tarte bat hartuko dugu egindakoari buruz hitz egiteko.
- Zer moduz egunez eguneko erronkak? Zenbat gauza egin dituzte gustukoak eta euskaraz?
- Zenbatek parte hartu zuten Korrikan? Gustatu al zitzaien?

(GOIKO KURTSOETAN, TALDEKA LANDU DAITEKE GERO KOMUNEAN JARTZEKO)

(Azken mezua emango diegu: oso pozik gaude Korrika dela eta erakutsi duten jarrerarekin. Guk euskara irakasten jarraituko dugu baina ikusten dugu euskaraz gauza asko eta gustukoak egiten dituztela eta guretzat benetan pozgarria da. Aurrerantzean ere egingo ditugu horrelako gauza gehiago.)



BURUNZPE

SASOETA-ZUMABURU
GURASO ELKARTEAK
AMPA DE
SASOETA-ZUMABURU



Korrika 2013

Eman euskara elkarri

Participar con vuestros hijos e hijas

**SASOETA-ZUMABURU IKASTETXEA
IKASLEEN GURASOENTZAT ESKUORRIA**

Korrika: eman euskara elkarri

- Sasoeta–Zumaburu ikastetxean urte asko daramatzagu gure ikasleek euskara ere ondo ikasi dezaten lantzen. Lan horretan gustura ari gara eta gero eta hobeto egiten dugu gainera.
- Martxoaren 23an Korrika pasako da gure herritik. Gure ikasleak eskolan ari dira euskara ikasten baina hainbat eta hainbat pertsonak horretarako aukera izan ez zuten euskaltegia ikasi behar izan zuten.
- Korrika euskara ikasitakoen festa izango da. Korrikan guztiok parte hartuko dugu: euskaltegietan ikasitakoek, gure ikasleek eta baita gurasook ere.
- Euskara jakin edo ez, garrantzitsua da zuen seme–alabentzat bai beraiek baita zuek ere Korrikan parte hartzea. Euskaraz ikasten ari dira eta garrantzitsua da beraientzat ikustea zuek ere baduzuela euskararekiko eta euskal kulturarekiko interesa.
- Hori oso erraz egin daiteke. Adibidez: **zatozte Korrikara eta parte hartu zuen seme–alabekin batera. Korrika asko egin beharrik ez dago, 50 metrok ere balio dute.**

Larunbatean izango da. Hantxe ikusiko gara!

Noiz? Non?

Martxoaren 23, larunbata, arratsaldeko 16.30 etan Hipodromoko zubian. Hantxe bilduko gara! **GURASO ELAKARTAK** bixera polit bat oparituko dizue, **KORRIKA BEXERAREKIN EGITEKO, SASOETA–ZUMABURU ESKOLAK** parte hartzen duela ikus dadin .

Etorri eta parte hartu. Primeran pasako dugu!

Markak hausten eta euskara indartzen. Sasoeta–Zumaburuko inoiz baino ikasle eta guraso gehiago Korrikan. Baietz lortu!

Zuen parte–hartzearen argazkiak atera eta bideo bat egingo dugu eta !!

Korrika: participad con vuestros hijos/as

- En Sasoeta-Zumaburu llevamos muchos años trabajando para que nuestros alumnos/as aprendan bien también euskera. Estamos a gusto con nuestra labor y, además, intentamos mejorar año a año.
- El 23 de marzo la Korrika pasará por Lasarte-Oria. Vuestros hijos/as están aprendiendo euskera en la escuela pero muchas personas que no tuvieron esa opción han estudiado en el euskaltegi.
- La Korrika es la fiesta de todos los que han aprendido euskara , y, en el caso de muchos padres y madres, la fiesta de los que habéis ofrecido a los hijos/as la posibilidad de aprenderlo.
- Sepáis o no euskera, para vuestros hijos/as es importante que, tanto ellos/as como vosotros/as participéis en la Korrika. Están aprendiendo euskera en un entorno donde el castellano es el idioma socialmente mayoritario: **es importante que vean que también os interesa el euskera y la cultura en euskera.**
- Es fácil transmitir ese tipo de actitudes: **participad en la Korrika con vuestros hijos/as. No es necesario correr mucho, con hacer 50 será suficiente.**

El sábado, nos vemos allí.

¿Cuándo? ¿Dónde?

El sábado 23 de marzo, **a las 4:30. en el puente del Hipodromo.** ¡Nos vemos allí!
LA AMPA de la escuela os regalará una bonita GORRA PARA participar en la KORRIKA y que se vea que la escuela SASOETA-ZUMABURU participa en ella.

Ven y participa. ¡Veréis que divertido!

Superando retos y disfrutando con el euskera. Tenemos que lograr que esta Korrika sea en la que más alumnos/as y padres/madres de Sasoeta-Zumaburu participan. ¡Lo conseguiremos!



Korrika 18 Lasarte-Oria

LASARTE-ORIA HERRIRA, MARTXOAREN 23AN, LARUNBATA, ARRATSALDEKO 17:00 ALDERA HELDUKO DA KORRIKA.

ESKOLAN KILOMETRO BAT EROSI DUGU, BESTE ESKOLEKIN BATERA .LEKUKOA NON HARTU BEHAR DUGUN MAPAN IKUS DAITEKE, **ZUMABURU ESKOLAREN INGURUAN: 7km→8km**, ETA TESTIGUA GURE ESKUETAN EGONGO DA BESTE ESKOLEKIN TXANDAKATUZ.

ANIMATU! PARTE HARTU KORRIKAN

El 23 de marzo, **SABADO**, hacia las 5 de la tarde llegará la KORRIKA a Lasarte-Oria . Nuestra escuela junto con los otros centros educativo del pueblo **hemos comprado un kilómetro (7--→ 8)**, En el plano podéis ver dónde nos toca recibir el testigo (**alrededores de la escuela de Zumaburu**). Durante ese kilómetro, (7-→) el testigo estará en nuestra manos compartiéndolo con los demás centros educativos de nuestro pueblo.

50metro...100m... 200m500m....700m... 1000m !!! edo ...Lasarte-oriako Korrika osoaaaa! Dena balekoa da! TIPI-tapa TIPI-tapa

MARTXOAK 23an, larunbatean BI EKINTZA BEREZIAK OKENDO PLAZAN
(Para el sábado dos actividades especiales en la PLAZA OKENDO)

10:00 etan, JOLASAK , helduentzako eta haurrentzako //juegos para niños/as y adultos

14:00 etan HERRI BAZKARIA (comida popular) **PREZIOA: Helduak 10€, haurrak 6€**

Bazkarirako ticketak (venta de ticket): **JALGI, ILARGI** tabernetan eta **AEK EUSKALTEGIAN**



SASOETA-ZUMABURU
GURASO ELKARTEA

AMPA DE
SASOETA-ZUMABURU

KORRIKA BADATOR!!!

BURUNZPE

Martxoak 23-an (larunbata) KORRIKA Lasarte-Oriara iritsiko da eta Sasoeta-Zumaburu Ikastetxea bertan izango da, gu ere euskararen alde gaudela argi adierazten. Guraso batzordetik animatu nahi zaituztegu parte hartzera. Horretarako, larunbata 23-an, arratsaldeko 16:45-etan Zubietako zubian elkartuko gera, denok batera KORRIKA egiteko. Bertara hurbiltzen geran guztioi, Guraso Elkartek bixera polit bat oparituko dizue, KORRIKA bixerarekin egiteko, eta horrela denok ikus dezatela SASOETA-ZUMABURU Ikastetxea bertan dagoela.

KORRIKA euskararen aldeko festa bat da, 10 egunetan Euskal Herriko herri guztiak zeharkatzen dituen festa. Bertan parte hartzeko ez da euskeraz jakin behar, helburua euskerarekiko gure konpromezua adieraztea da, bere erabilera bultzatzea, eta ikasten ari diren guztiei omenaldia egitea.

PARTE HARTU. Ikus dadila Sasoeta-Zumaburu Ikastetxean euskera bultzatzen degula!!



¡¡¡QUE VIENE LA KORRIKA!!!

El 23 de marzo (sábado), la KORRIKA llega a Lasarte-Oria, y la escuela Sasoeta-Zumaburu participará, mostrando nuestro apoyo al euskera. Desde el AMPA queremos animaros a tod@s a participar. Para ello, nos juntaremos el sábado día 23, a las 16:45 en el puente de Zubieta, para participar tod@s junt@s en la KORRIKA. A tod@s l@s que os animéis, desde la AMPA os regalaremos una gorra muy bonita, para poder correr con ella, y para que tod@s vean así, que la escuela SASOETA-ZUMABURU participa.

La Korrika es una actividad que se realiza a favor del euskera, en la que durante 10 días se recorren sin parar prácticamente todos los pueblos de Euskal Herria. Da igual saber o no euskera, el objetivo es mostrar nuestro apoyo al euskera, impulsar la concienciación a favor de su uso y homenajear a aquell@s que lo están aprendiendo.

PARTICIPA. ¡¡Que se vea que la escuela SASOETA-ZUMABURU impulsamos el euskera!!





BURUNZPE

SASOETA-ZUMABURU
GURASO ELKARTEA

AMPA DE
SASOETA-ZUMABURU

7. ERANTSIA. EUSKARAZ BIZI NAHI DUT EKIMENA



euşkarəz
bizi
nəhi düt





BURUNZPE

SASOETA-ZUMABURU
GURASO ELKARTEA

AMPA DE
SASOETA-ZUMABURU

8. ESKOLAZ KANPOKO JARDUEREN ERIZPIDEAK



BURUNZPE

SASOETA-ZUMABURU
GURASO ELKARTEA

AMPA DE
SASOETA-ZUMABURU

HEZITZAILEEN HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

Zer egin behar genuke?

- Hurrei beti euskaraz egin. Ez kontuan hartu beraiek nola erantzuten dizueten, zuek beti euskaraz egin. Oinarrizko pausoa da hori.
- Tarteka, ez ulertuarena egin. Zerbait gaztelaniaz esaten dizuetenean, modu honetako esaldia erabili: Barkatu? (*eta errepikatu dezala*), Zelan? (*eta errepikatu dezala*), eta abar. Lehen Ikusi dezatela guri euskaraz egitea nahi dugula eta beraientzat ere erosoagoa dela guri euskaraz egitea (ez dute elkarrizketa behin eta berriz hasi behar).
- Ahal duzuen guztietan taldetxoetara hurbildu eta tartean sartu, **beraien elkarrizketetan sartu**: elkarrizketa berri bat sortu, beraiekin jolasten hasi... Modu horretan, beraiekin elkarrizketan arituz, elkarrizketa hori euskarara bideratu ahal izango dugu.
- Errefortzu positiboak eman: Ohikoa ez den egoera batean euskaraz entzuten ditugunean, kostata bada ere zerbait adierazteko euskaraz ari direnean... Seguru askotan eman ahal izango dizkiegula.

Zer ez dugu egin behar?

- Ez erabili *Egin euskaraz!* edo antzeko esaldirik.
- Ez kargu hartu euskaraz egiten ez dutelako, ez errudun sentiarazi.
- Ez zuzendu: Komunikatzen badira, balio du. Ez zaigu gehiegi axola tarte horietan euskara zuzena erabiltzen duten edo ez: asko eta gustura erabiltzen badute hobetuko dute, baina ez badute erabiltzen ez dute inoiz hobetuko. Hori bai, zerbait adierazteko laguntza eskatzen badizuete, eman. Laguntzea komenigarri ikusten baduzue baliabideak eskainiz lagundu (*Pasatu ura. Ura ematea nahi duzu? Bai, eman ura, mesedez*). Baina ez zuzendu.
- Hizkuntza kontuetan behintzat, ez zigorrik eta ez mehatxurik. Ez dugu ezer aurreratuko.
- Zergatik ez dira estrategia horiek erabili behar?
 - o Nahiko normala da hurrek gaztelaniarako joera hartzea. Askoren ama hizkuntza gaztelania da eta erraztasun eta aberastasun handiagoa dute gaztelaniarekin. Gainera, inguruneak (auzoak, hiriak...) nagusiki gaztelania eskaintzen die. Beraz, normaltzat hartu daiteke joera hori. Gu denon zeregina da euskara asko erabil dezaten laguntzea.
 - o Euskararekin harreman handia eta positiboa izatea nahi dugu. Horrelako estrategiekin ez dugu lortzen harremana handitzea, eta, gainera, harreman hori negatiboa da. Gure eragina handiagoa edo txikiagoa izan, positiboa izatea lortu behar dugu.
- Eta kontuan izan, hezitzaileen artean euskaraz egin. Hurrek zuek gaztelaniaz (tarteka bada ere) egiten duzuela sumatzen badute, zuen sinesgarritasun guztia galduko duzue.



BURUNZPE

SASOETA-ZUMABURU
GURASO ELKARTEA

AMPA DE
SASOETA-ZUMABURU

9. MATRIKULAZIO GARAIKO PLANGINTZA

SASOETA–ZUMABURU IKASTETXEA

MATRIKULAZIO GARAIRA BEGIRA

Helburua:

- Guraso euskaldunak Sasoeta–Zumaburun izena eman dezaten animatzea.
- Euskaraz ez dakiten gurasoei, hizkuntzen ikaste prozesuari buruz eta euskararen erabilerari buruz, eskolaren helburuak zein diren azaltzea eta beraien aldetik zein jarrera eta jokabide espero den azaltzea.

Interesguneak/heldulekuak:

- Ikastetxearen proiektu berria gaitasun komunikatiboak eta erabilera lantzerantz begira
- Urteetan egin den lana: HNP, herrian...
- Gurasoen inplikazioa: euskara batzordea

Kanpaina:

- Matrikulazio kanpaina nola egin oso ondo pentsatu behar da.
- Irudi berri bat eman nahi da eta kanpainak ezaugarri berriak behar ditu. Berdina egiten bada...
- Kanpaina mezuak oso argi geratu behar du: gaitasunetan eragiteko proiektu berri eta berritzailea, irakasleen inplikazioa (formazioa, proiektuak...), gurasoen inplikazioa...
- Kanpaina ezin da soilik hizkuntza proiektuari buruz hitz egin, eskola ez da hori soilik, baina modua topatu behar da horrek protagonismoa izan dezan.
- Adibidez:
 - o Eskolaren proiektua azaltzen duen publizitatea (Txintzarri....)
 - o Baina atal berezi eta nabarmena euskarari: ezagutu ezazu EHko proiektu berri eta berritzaileena, bisitatu gure web orria eta ikusi bideoa. (Bideo bat jarri daiteke, motza, proiektua aurkeztu, gurasoen lana ere bai, herrian eskolak duen garrantzia...)

Matrikulazio garaia:

- Oso ondo prestatu behar dira gurasoentzako mezuak: eskolaren proiektua, mugak, zer espero den gurasoen aldetik, zer eskainiko zaien...
- Adibidez: gurasoentzako aurkezpenean Zuzendaritzak mezua aurkeztu, Gurasoen Euskara Batzordekoak mezua aurkeztu, galdetegi bat egin gurasoen euskara ezagutza jakiteko, guraso euskaldunengana jo Batzordetik eta proiektua azaldu, kezkak eta asmoak, garrantzia...
- Mezua, gutxi gora behera, horrelakoa izan daiteke:
 - o Gaitasuna: eskolak gaitasuna bermatzen dizu. Landu dugun proiektuarekin euskara eta gaztelania maila onak izango dira. Hemen ziurtasuna eman behar zaie gurasoei.
 - o Erabilera: gero eta hobeto ari gara baina kezka dugu eta zailtasunak ditugu. Hainbat bide garatzen ari gara. Guraso euskaldunen beharra ere badugu. Zure laguntza behar dugu eta baina eskolak ere lagunduko dizu.

SASOETA–ZUMABURU IKASTETXEA

AURREMATRIKULAZIO BILERARAKO GIDOIA

– **Nor garen azaltzea**

- o Gurasoen Euskara Batzordeko kideak gara
- o Lanean ari gara gure seme-alabek, hizkuntzak ondo ikasteaz gain, euskara erabil dezaten: eskolan, kalean...
- o Lantalde bat osatu genuen eta plangintza bat abian dugu.
- o Eskolako arduradunekin koordinatuta aritzen gara.

– **Guraso Batzordearen zeregina azaltzea**

- o Eskolaren norabide berean ari gara, eskolak dituen helburuak gure egiten ditugu
- o Horregatik:
 - Guraso euskaldunei aholkuak eskaintzen dizkiegu seme-alaben hizkuntza ohiturei begira (irakasleen bidez ekin diogu lan honi).
 - Euskara ez dakiten gurasoei gonbitea egiten diegu euskararekiko aktiboak izan daitezen. Gainera, beraiei ere hori komeni zaiela azaltzen diegu. (Irakasleen bidez, euskararen egunean...).
 - Eskolan irakasleek egiten duten lanaren jarraipena egiten dugu: hartu diren bide berriei jarraipena egiten diogu bereziki.
 - Herrian eskolak duen irudia aldatzeko ahalegina egiten dugu: irudia ez doa bat egiten den lanarekin (herriko euskarazko jardueretan parte hartzen dugu, aktiboak gara...).

– **Guraso euskaldunon kezkak azaltzea:**

- o Hainbat guraso euskaldunok zalantzak izan genituen ikastetxean izena ematerako garaian: ez zen kasu guztietan aukera bete betekoa izan.
- o Baina ikusten dugu eskola zertan ari den eta zein ahalegin egiten ari den, eta lagundu nahi dugu horretan.
- o Are gehiago, ikusten dugu eskola ahalegintzen dela guraso euskaldunon seme-alaben hizkuntzazko beharrak zaintzen eta mimatzen. Gure

kezka eta zalantzak ulertzen dira eta horren aurrean neurriak hartzen ari dira.

- o Gaur egun ere baditugu kezkak: gure seme-alabek denbora guztian euskaraz egitea nahi genuke, erabateko euskal giroa izatea... Baina Lasarte-Orian gaude. Guraso moduan horren ardura hartzen dugu eta seme-alabei lagunduko diegu hizkuntza ohiturei begira ere.

– **Eskolako parte izateko gonbitea:**

- o Zenbat eta guraso euskaldun gehiago izan, denontzat askoz hobe. Hori ere argi daukagu.
- o Eskolak hasi duen bidea eta gu egiten ari garen lana askoz eraginkorrak izango dira guraso euskaldunen kopurua handia bada.
- o Hori horrela izan edo ez izan, guk gure zereginean jarraituko dugu.
- o Eskolan izena ematea aukeratzen baduzue, ongi-etorriak izateaz gain gurekin batera aritzera gonbidatuko zaituztegu: batzordeko kide moduan edo besterik gabe egiten denaren jarraipena eginez.

– **¿Quiénes somos?**

- o Somos miembros de la Comisión de Euskera del Ampa. Trabajamos en coordinación con la dirección del centro.
- o Queremos que nuestros hijos aprendan bien tanto euskera como castellano, y, además, queremos que entre los amigos/as hablen en euskera.
- o Sabemos que a muchos padres y madres no os preocupa tanto el uso del euskera, pero sí queréis que aprendan bien tanto el euskera como el castellano. Por ello, os interesa mucho que vuestros hijos e hijas usen mucho el euskera: cuanto más lo utilicen más recursos y facilidad tendrán.

– **¿Qué hacemos?**

- o Participamos en actividades que se organizan en el centro y en Lasarte-Oria: Maratón del euskera, Korrika, Euskararen Eguna..
- o En coordinación con los profesores ofrecemos a padres y madres consejos y herramientas para cuidar el uso del euskera ds sus hihos/as.
- o Hacemos un seguimiento de la labor del centro: creemos que el trabajo es muy bueno, que el camino emprendido recientemente es realmente adecuado, y por ello queremos conocer de cerca el proceso.

– **¿Qué os proponemos?**

- o Os proponemos que seáis activos hacia el euskera: no dejéis sólo en manos de la escuela el proceso de aprendizaje de los idiomas, especialmente del euskera.
- o La escuela realizará su trabajo, pero tiene limitaciones.
- o Podéis aprender euskera, utilizar el euskera que sabéis, ofrecerles uso del euskera en casa (televisión, radio, juguetes), actividades extraescolares en euskera... Podéis hacer muchas cosas y realmente os conviene.
- o Tanto los profesores como nosotros os daremos consejos, os propondremos ideas...
- o Cuidando pequeñas cosas podéis ser activos hacia el euskera y hacerles un gran favor a vuestros hijos e hijas.

SASOETA–ZUMABURU IKASTETXEA

AURREMATRIKULAZIO GARAIKO BIDEOA

Kokatzea:

- 45' segun edo 60' inguruko bideoa
- Sare sozialen bidez hedatzeko
- Guraso euskaldunei begira: aurkezpenera joatea erakargarri egin nahi dugu (zertan ari dira ba Sasoeta–Zumaburun? Gutxienez ezagutu dezadan).
- Zailtasunik handiena oso kontuan izan behar da: Irudia. Gauza asko eta oso onak eginda ere, irudia aldatzea asko kostatzen da.

Ezaugarriak:

- Argazkiak
- Argazkiekin batera doan testua
- Musika
- Narratzailea

GIDOIA

ARGAZKIA	ARGAZKIAREKIN TESTUA	NARRATZAILEA
1	- Izenburua: Ezagutu ezazu gure eskola. Arro gaude. Merezi du! - Azpititulua: Sasoeta-Zumaburu: markak hausten eta euskara indartzen.	
2	- “Betikoa egiten baduzu, betiko emaitzak lortuko dituzu. Beste zerbaite nahi baduzu, ezberdin egin beharko duzu”. Albert Einstein.	- “Betikoa egiten baduzu, betiko emaitzak lortuko dituzu. Beste zerbaite nahi baduzu, ezberdin egin beharko duzu”. Hori esaten omen zuen Albert Einsteinek. - Guk hori argi dugu eta orain ere gauza berritzaileetan gabiltza.
3	- Euskal Eskola Publikoa	- Euskal Eskola Publikoa gara: herrikoa, guztioi irekia eta euskalduna. Euskal kulturaren sustraiei lotua, euskara ardatz hartuta eta herriaren etorkizunarekin konprometitua.
4	- Badakigu zertan ari garen - Gustura ari gara	- Sasoeta-Zumaburun gero eta emaitza hobeak nahi ditugunez EZ DUGU BETI BETIKOA EGITEN. Arlo pedagogikoa lantzen ari gara, etengabe, eta Euskal Herrian benetan berritzaileak diren bideei ekin diegu. Gurasoen Euskara Batzorde indartsu eta aktiboa dugu, eskolako guztiok norabide berean aritzea nahi baitugu. Herrian parte hartzen dugu eta herriko jardueretan ere aktiboak gara. - Gure helburuei begira badakigu zertan ari garen eta gustura ari gara.
5	- Ausartak gara - Bide berritzaileei ekin diegu	- Hori ulertzea errazagoa egiten da Lasarte-Oria bera aztertzen badugu. Hizkuntza-normalizaziora begira herrian aspaldi utzi genion betikoa egiteari: berdin zaigu kanpoan dugun irudia, guk badakigu zertan ari garen eta, are gehiago, gaur egun eredu ere bagara! Euskararen Maratoia hemen soilik egiten da, Euskara Elkarte indartsua dugu, euskararen normalizazioan

		beste askok eredutzat dute gure herria... eta hori ausartak izateagatik eta gauzak aldatzeko gogoia edukitzeagatik lortu da. – Sasoeta–Zumaburun arro gaude hartu ditugun bide berriekin. Ausartak gara eta aurrera goaz.
6	Euskarazko aurkezpena: Urtarrilaren 30ean, 18.00etan, Zumaburuko egoitzan Informazio gehiago: Eskolako emaila Eskolako telefonoa	– Gure proiektua aurkeztu nahi dizuegu. Ziur gaude gurasoontzat egokia eta erakargarria dela. – Orain une egokia da. Aurre–matrikulazio garaian gaude. Zatoz gure proiektua ezagutzera. Euskarazko aurkezpena urtarrilaren 30ean izango da, Zumaburuko eraikinean, arratsaldeko ...
1	Izenburua: Ezagutu ezazu gure eskola. Arro gaude. Merezi du! Azpititulua: Sasoeta–Zumaburu: markak hausten eta euskara indartzen.	– Ezagutu ezazu gure eskola. Arro gaude. Merezi du! – Sasoeta–Zumaburu: markak hausten eta euskara indartzen.



BURUNZPE

SASOETA-ZUMABURU
GURASO ELKARTEA

AMPA DE
SASOETA-ZUMABURU

10. ZUZENDARITZAREN BABES ESKUTITZA



SASOETA
Kalbario bidea 4
Tfno-a: 943 361226
Fax-a: 943 371308

sazu.zuzendaritza@gmail.com

ZUMABURU
Zumaburu 13
Tfno- Fax-a: 943 362274

SASOETA-ZUMABURU/ ESAZU IRRATIA FM105.5: OSTIRALETAN 9:9:45etatik 11:00etara

Eskolako Euskara Batzorde kideek txosten hau bukatu ahala, irakurtzeko eman ziguten. Honelaxe egin eta poza sentitu genuen:

Sasoeta-Zumaburu eskolako zuzendaritza taldearen ustetan, lan bikaina egin dute, harrotasuna sentiarazten duen horietakoa. Pozik eta harro gaude txosten honetan ikusten den lanarekin, baita gure Eskolako Gurasoen Euskara Batzordearekin ere.

Gurasoek, zuzendaritza taldearekin eta eskolarekin, izan diren harremanak eta laguntza aipatzen dute. Horrela izan da, eta egiten dituzten adierazpenen bidez, sumatzen den gertutasun eta adostasuna benetakoa izan da. Atsegina izan da beraiekin lana egitea. Batzuetan, eskoletako guraso eta zuzendaritza/irakasleen arteko harremanak ez dira errazak izaten, tira-birak egoten dira eta harreman hauek konpetentzia lehia balira bezala bizitzen dira, norberak bere eremu eta eskubideak defendatzen. Oraingo honetan ez da horrela izan ordea. Lan-giro atsegin batean aritu gera, helburu komun bat izanik eta bakoitzak berea aportatuz, errespetu handiz gauzatu dira ekintzak, elkarrekiko konfiantza egunetik egunera sendotuz.

Bestetan, “euskararen normalkuntzaren” inguruko prozesuen beraien ezagutza falta dela eta, eskolatik ere laguntza jaso dutela aipatzen dute. Bada, eskolatik esatea honakoa: Ezagutza teorikoak, edota urteek ematen duten ezagutza dela eta, baliteke eskolan eskarmentu handiagoa izatea baina, Gurasoen Euskara Batzorde honetan, oso ondo daude identifikatuak, hau da oso ondo “ezagutzen” dituzte lortu nahi diren helburuak, eta lortzeko Eskola Komunitate osoaren lana beharrezkoa dela ere ondo dakite. Hau jakitea, hizkuntza gutxiagotu baten inguruan lana egitera zoazenean oso garrantzitsua dela uste dugu, eta eskolak duen ezagutzari, baita “*ebte*” erakundetik etorri denari etekinak ateratzea erraza egiten da, helburuak garbi daudelako.

Azkenik, baloratzean azaltzen diren ekintza eta jardun guztiaz, berriro ere pozik egoteko modukoak direla uste dugu. Gauzapenean murgilduta gaudenean, zaila da baloratzea egiten dena, baina distantzia pixka bat hartuta egindako lana helburuekin koherentea eta gauzapenean aberatsa izan dela iruditzen zaigu. Sormen handikoa, sakona eta ongi burutua...

Erronka dute (dugu) Gurasoen Euskara Batzordean: Bide eta neurri honetako lanak egiten jarraitu. Eta gu eskolan, zuzendaritza taldean, pozik eta harro, beraiekin lana egiten jarraitzeko prest.

Sasoeta-Zumaburu eskolan, 2013-04-17

Marga Iturriza
Sasoeta-Zumaburu eskolako zuzendaria



BURUNZPE

**SASOETA-ZUMABURU
GURASO ELKARTEA**

**AMPA DE
SASOETA-ZUMABURU**